Goienkaria

2010eko azaroaren 5a > Egubakoitza > X. urtea > 441. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE · www.goiena.net · TOKIKOM



"Batez ere entretenitzeko darabilte Internet bailarako nerabeek"

Amaia Pavon Ikus-entzunezkoen irakaslea > 08

G2a Aztergai AEBetako euskaldunen literatura > 23

ARRASATE Kanpotik zuloa eginda Correosen lapurreta egiten saiatu dira > 10

ESKORIATZA Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria hilaren 27an > 15

ELGETA Etzitik aurrera hilean behin egingo dira bisitak gerrako frontera > 19

KIROLA > ATLETISMOA

Ezinduendako ere izango da bihar Soraluze-Bergara krosa

IRTEERA 17:00etan irtengo da lasterketa; gurpildun aulkian dabiltzanak 5 minutu lehenago abiatuko dira

IZENEMATEA Egunean bertan ere eman daitekeenez izena (15:00), garaiz ibiltzeko eskatzen diete korrikalariei

GAZTEAK Nagusiek 10.000 metro egingo dituzte, baina gazteendako 400, 800 eta 1.200 metrokoak ere egongo dira > 20-21

JAURLARITZA > ERTZAINTZA

Trafiko unitatea Bergarara

Errepideak gehitu direla eta, ertzain etxea errealitate berrira egokitzea da helburura > 04



LANTALDEA Ikus-entzunezkoan parte hartu duten protagonistak, egileak eta laguntzaileak Aroztegi aretoko aurkezpenaren ostean DVDa erakusten. MONIKA BELASTEGI

Betiko ehun erremedio batu dituzte DVD baten, Bergaran

Erremeixoak. Osasuna munduko ondasuna izeneko DVDa aurkeztu dute asteon Bergaran. Bi orduko iraupena du eta gaixotasunak osatzeko erabili ohi diren sendabelar eta bestelako erremedioak aztertu eta jaso dituzte; guztira, 100.

Erremedioak batzeko, Antzuola, Bergara eta Zumarragako 12 laguni eginiko elkarrizketatan oinarritu dira. Anaje Narbaitzaren ideiatik abiatuta, Narbaitzak berak eta Andoni Goitik eta Belen San Torkuatok 3 urtean garatutako lana da. > 12

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 06
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-19
Kirola > 20-21
Kultura > 24-25
Gazteak > 26
Sailkatuak > 27
Telebista-Irratia > 28
Zerbitzuak > 28
Berri-zakua > 29
Eskelak > 29
Non-zer > 31-32

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO TAXILARIEK?

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Olandixon sei mila ibilgailu egunero

Uztailaren 26an ireki zuten Arrasateko Mendebaldeko Saihesbidea eta datu esanguratsuak eman ditu: 6.000 ibilgailu pasatzen dira egunero, astelehenetik barikura. Asteburuetan, 2.000 ibilgailura jaisten da kopuru hori. > 10

Danbaka lehiaketaren bigarren saioa gaur, barikua

Elgetako Espaloia, 22:30
5 euro (Gaztekutxa, 3 euro)

> El Trio Calavera
> Rock Privado
> Front Malabar
> Ymotek

DANBAKA

HEZKUNTZA > LANBIDE HEZIKETA

Lan-poltsa, enplegurako makulu bikaina

ENPRESAK Bergarako Miguel Altuna institutua hasi da enpresen aldetik langile eskaera gehiago jasotzen: urrian 22 jaso zituen

LAGUNTZA Bailarako Lanbide Heziketako ikastetxe gehienek daukate lan-poltsa edo bitartekaritza zerbitzu bat



Miguel Altunako lan-poltsaren arduradunak, Miren Errasti, Marisol Gonzalez eta Joxu Arana, we

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

INEMek emandako iraileko langabezia datuak ikusi ondoren, Bergarako Miguel Altuna Institutuko lan-poltsaren arduradun Joxu Aranak beste datu batzuk espero zituela adierazi digu; datu horien arabera, Bergarak %10,29ko langabezia-tasa zuen, eta Bergaran 738 langabe zeuden. "Azken hilabeteotan, lanpostuak zeuzkatela-eta jende bila aurrekoetan baino enpresa gehiago etorri zaigunez, langabeziaren jaitsiera espero nuen", esaten du Aranak. Bere esanetan, irailaz geroztik "mugimendu handiagoa" igartzen dabiltza, eta datu batzuk dauzkate: irailaren 10az geroztik, enpresen 32 eskaera jaso dituzte, eta horietatik 22, urrian bakarrik.

Urriko langabezia datuak bide horretatik doaz: hala, INEM erakundearen arabera, zertxobait txikitu da langabezia Debagoienean irailetik hona (%9,74 urrian, 3.018 langabe; %9,78 zen irailean, 3.031 langabe); irailean zerbait gora egin zuen, hilabete horretan normalean gertatzen den moduan. Eta, hain justu, Bergaran murriztu da gehien langabezia: irailean %10,29 zen tasa, eta urrian, %9,74; 738 langabe izatetik 699 izatera pasa da, betiere INEMen datuei kasu eginez. Bailarako beste herri handienetan, irailean adina langabe edo gehiago izan dira urrian.

DATUA

32

LAN ESKAINTZA

Miguel Altuna institutuak bailarako enpresen 32 eskari jaso ditu iraila ezkero, institutuko ikasleak enplegatzeko. Haietatik 22 urrian bakarrik jaso dituzte.

3.018

LANGABE DEBAGOIENEAN

INEMen datuen arabera, zertxobait txikitu da langabezia irailetik hona Debagoien osoan: 3.031 langabetik 3.018ra. Gehien Bergaran txikitu da langabezia.

LAN-POLTSA BERRITUA DUTE

Ikasleei hobeto laguntzeko, Miguel Altunako arduradunek modu berri baten kudeatuko dute euren lan-poltsa. Horretarako, dagoeneko martxan daukate *www.lanpoltsa.com* webgunea. Berau eramaten dute Joxu Aranak, Miren Errastik eta Marisol Gonzalezek. Lan bila dabilen pertsona bakoitzari alta ematen diote; bestalde, nahi duten enpresei ere pasahitz bat ematen diete, eta sistemak berak ematen die enpresei euren irizpideekin edo premiekin ondoen doazen pertsonen curriculumak.

Orain arte, norbait kontratatu nahi zuten enpresek ikastetxera jotzen zuten eta ikastetxeak egiten zuen bitartekari lana. Sistema berriak abantaila garrantzitsuak ditu, Joxu Aranaren esanetan: "Curriculumak eta datu guztiak eguneratuta izateko modu bat da; alta ematen duen ikasle edo ikasle ohi bakoitzak esaten digu langabezian dagoen, lanez aldatu nahi duen, ikasten jarraitu nahi duen... Bestetik, ziurtasuna ematen digu datu horiek fidagarriak eta eguneratuak direla, eta zerbitzua ematen diegu bi aldeei: lan bila dabiltzanei eta enpresei".

Webgune horren ezaugarrietako bat da informazioa modu sistematizatuan jasoko duela enpresak: hala, webguneak fitxa edo atal desberdinak ditu, bakoitza informazio mota batekin: norbere datuak; hizkuntzak eta bakoitzaren maila; non eta noiz egin diren praktikak; norbere lan esperientzia... "Curriculumak formatu estandarrean daude, denak berdin eta itxura berarekin", esaten dute arduradunek.

Webgunea berri-berria dela kontuan izanda, dagoeneko 300 lagunen curriculumak batzea ez da batere marka txarra; 2006a ezkero izan dituzten ikasle guztien datuak dituzte webgunean. Horrez gain, ikasle izan direnei gutunak bidaltzen hasi dira, eurek ere interesa izango balute euren profila sortzeko.

Bestalde, datuak eguneratuta izan ditzaten, institutuko arduradunek hiru hilabetean behin SMS mezua bidaltzen diete izena emanda daudenei..

Antzeko sistema bat dauka Mondragon Unibertsitateak. Goi Mailako hezkuntza zikloren bat, Ingeniaritza Teknikoa edo Ingeniaritza, graduondoko ikasketaren bat edo master bat bukatu dutenei zuzenduta dago. Izena emateko, Juan Basarte arduradunari e-maila bidali behar zaio (*jbasarte@eps.mondragon.edu*), eta hark bidaliko dio bete beharreko dokumentazioa. Hiru hilabetean behin berritu behar da alta. Basartek dioenez, 850 enpresarekin du harremana. Horiek bilatzen duten langilearen profila bidaltzen diote, eta Basartek hautagaien berri ematen die.

IAZKO GEHIENAK, LANEAN

Miguel Altunako lan-poltsaren kudeatzaileek ikusten dute Bergaran eta, oro har, Debagoienean, sektore jakin batzuetan, batez ere, lan merkatua hobeto dagoe-

ESANAK

"Azkenaldian enpresa gehiago etorri zaigu, lanpostuak zituztela-eta; horregatik, langabezia datu hobea espero nuen"

"Lan-poltsa kudeatzeko modua berritu egin dugu, datuak eguneratuta izateko"

Joxu Arana > Miguel Altunako lan-poltsaren arduraduna

ESANAK

"Azkenaldian, oso lan eskaintza gutxi jaso ditugu; lana egonkortu egin da, geratzen direnendako dago lana"

"Krisiari dagokionez, susmoa da beherago ez garela joango, beldur eszenikoa galtzen ari garela"

Eduardo Sudupe > Zuazola-Larrañako zuzendariordea





bgune berritua erakusten. LEIRE KORTABARRIA

la: "Zikloa amaitzen dutenei handik sei hilabetera deitu egiten diegu euren lan egoeraz galdetzeko; bada, iaz gurean zikloa bukatu zuten gehienak lanean daude, eta langabezian %9 inguru daude", esaten du Joxu Aranak. Kontuan hartu behar da ikasketak bukatzen dituzten batzuk ikasgeletara bueltatzen direla: Erdi Mailako zikloa egiten duten askok Goi Mailakoa egitea erabakitzen dute.

Aranaren iritziz, "batez ere fabrikazio mekanikoko arloan" hobetu dira lan-aukerak.

Miguel Altunako ordezkarion iritziz, krisiak beste eragin bat dauka: " Krisiarekin, kualifikazio txikiagoa zuten langile asko lanik gabe geratu dira, eta enpresak kualifikazio handiagoko langileak nahiago dituzte orain". Beste eragin bat ere antzeman dute: "Ikasleen batez besteko adina ere handiagoa da".

BITARTEKARI LANA

Debagoienean, Lanbide Heziketa ikasketak ematen dituzten beste hainbat ikastetxe dago. Horiek ere laguntzen diote ikasleari lan munduan sartzen, eta bakoitzak bere sistema dauka; hala, adibidez, Aretxabaletako Lanbide Eskolan dago Eusko Jaurlaritzaren Lanbide zerbitzuaren ordezkaritza bat, eta hantxe izena ematen dute ikasleek –Lanbiden izena emateko aukera dago *www.lanbide.net* webgunean ere.

Beste ikastetxe batzuek bitartekari lana egiten dute; adibidez, Oñatiko Larraña-Zuazola institutuak, Bergarako Mariaren Lagundiak edo Arizmendi ikastolak. Dena dela, azkenaldian egoerak geldo samar jarraitzen duela esaten dute ikastetxe horietako arduradunek. Honela dio Zuazola-Larrañako zuzendariorde Eduardo Sudupek: "Azkenaldian oso eskari gutxi jaso ditugu. Ematen du lana egonkortu egin dela, hau da, lana dagoela lanean geratu direnendako. Susmoa da beherago ez goazela eta beldur eszenikoa gainditzen goazela; baina susmoa da, oraingoz".



Hainbat ikastetxetako arduradunak, Lanbide Heziketako azokan, aurten. GOIENKARIA

Azken urteotan, euren balioa handitzea eta jakinaraztea lortu du Lanbide Heziketak

Lanbide Heziketak prestakuntza aukera gogokoa izaten jarraitzen du. Jendearengana hurbiltzeko, Debagoienean ere egiten dira Lanbide Heziketako azokak; aurten bigarrena egin dute.

Horrela, ikasketa horiek euren balioa eta abantailak jakinaraztea lortu dute: hasieran, langabeei euren burua prestatzeko aukera ematea; gero, formazioa jasotzeko, osatzeko eta esperientzia baloratzeko aukera ematea edozeini; eta langileei, titulu ofizial bat lortzeko aukera.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEA 2 URTE

1000 b/min
6 Kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-1106
295 € aspes



BERMEA 2 URTE

1200 b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-7712S
348 € FAGOR



BERMEA 2 URTE

1200 b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-72557
485 € AEG



BERMEA 2 URTE

A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA F50872
385 € AEG



BERMEA 2 URTE

1000 b/min
7 Kg

A+ Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA FSB-570B
365 € FAGOR

LABE ETA BITROZERAMIKA



BERMEA 2 URTE

A Sailkapen energetikoa
PLAKA IF-3S/AX
ETA LABEA 6H-860AX
FAGOR

Lehen ~~1.209 €~~
Orain 950 €





BERMEA 2 URTE

200
x
60
x
60

A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FFJ-4825X
682 € FAGOR



BERMEA 2 URTE

GARBIGAILUA ROOMBA 531
370 € iRobot



EVA MAHAI ZABALGARRIA
+ 4 AULKI VENECIA
599 € 110 X 70

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

JAURLARITZA > ERTZAINTZA

Ertzaintzak Trafiko unitatea ekarriko du Bergarako komisariara

Herrizaingo Sailak 217 agenterentzako kurtsoak jarriko ditu martxan Bergarako ertzain etxean, bide segurtasunean espezializa daitezen



Zirkulazio Sailaren egoitza berri bat Bergaran egongo da. LANDER MUÑAGORRI

LANDER MUÑAGORRI > BERGARA

Herrizaingo Sailak laster barru Ertzaintzaren Trafiko unitatea Bergaran jartzeko asmoa dauka. Azken denboraldian errepide berri ugari eraiki dira gurean, Eibar-Gasteiz autobidea, esaterako, eta unitate berriaren helburua da ertzain etxea errealitate berrira egokitzea.

Orain arte, Gipuzkoako Trafiko unitatearen egoitza nagusia Oiartzunen zegoen, Frantziako mugatik gertu. Horrek zerbitzua baldintzatu egiten zuen, Gipuzkoako beste punturen batera artatzera joan behar izanez gero geografikoki leku ezegokia baitzen. Hasierako asmoen arabera, Bergarako egoitzak 50 ertzain inguru izango ditu, eta horietatik 30ek inguruk bide zirkulazioan espezializatuta egon beharko dute. Egoitza nagusiak Oiartzunen egoten jarraituko du, eta Bergarakoa haren osagarria izateko erabiliko da.

Zerbitzu hori gurera etor dadin ez da eraikin berririk egingo, itxura guztien arabera. Ertzaintzatik ezer baieztatu ez duten arren, Bergarako Udalean ez daukate eraikin berri baten inguruko inongo informaziorik.

DATUA

470

ERTZAINA

Bide Zirkulazioko Sailean 470 ertzainek lan egiten dute, eta horietatik %50ek inguruk behin-behineko lan baldintzetan dihardute. 225 ertzainek dute lanpostu finkoa.

KURTSOAK BERGARAN

Herrizaingo Sailaren proiektu horren barruan, Bergarako egoitzan bide segurtasunaren inguruko kurtsoak eskainiko zaizkie polizia autonomikoei. Aurreikuspenen arabera, 217 agenteri eskainiko zaizkie kurtso horiek. Era berean, unitatea martxan jartzeko, postuz igotzeko kurtso guztiak egitea ere aurreikusten da.

Testuinguru horretan, Trafiko unitatearen arazoetako bat bertako langileen behin-behineko egoera da: agenteen erdiek, gutxi gorabehera, egoera horretan egiten dute lan. Bidezaintzan 470 ertzain daude, eta horietatik 225ek bakarrik daukate postu finkoa. Egoera horrek tentsio une ugari sortu ditu, eta Ernek, Ertzaintzaren sindikatu nagusiak, egoera hori hobetzeko eskatu du.

AZPIEGITURAK > OSPITALEA

Jaurlaritzak milioi bat euro bideratuko ditu ospitalerako

Aurreikusitakoa baino 249 milioi gehiago batuko ditu Jaurlaritzak aurten eta sektore publikora bideratuko dute diru gehiena

EDU MENDIBIL > BERGARA

Jaurlaritzak milioi bat euroko inbertsioa egingo du Debagoieneko ospitaleko berrikuntzarako. 2010. urtean aurreikusitakoa baino 249 milioi euro gehiago batuko ditu Jaurlaritzak eta, ekonomia suspertzeko asmoz, sektore publikora bideratuko dute diru gehiena. Besteak beste, garraio azpiegituretarako 49,3 milioi aurreikusi dituzte (horietatik 12 milioi trenbide sarerako); ikerkuntza eta garapenerako (I+G) 58,9 milioi; hezkuntzarako 36,8; osasun azpiegituretarako 28,3 milioi; eta inguru azpiegituretarako 25 milioi.

Osasun arloko inbertsioei dagokienez, Donostia ospitaleak 2,4 milioi jasoko ditu, 1,2 berrikuntza lanetarako eta beste 1,2 esterilizazio zentralerako, hain zuzen ere; Zumarragako ospitalean obstetrizia unitatea abian jartzeko 1,6 milioi bideratuko dituzte eta, esan bezala, Debagoieneko ospitaleak 1,2 milioi euro jasoko ditu.

LEGEBILTZARREAN AZTERGAI

EAJko Bakartxo Tejeriak Legebiltzarrean egindako galderari erantzunez, ospitaleko lehen eraikinaren eraikuntza 2011ko lehen hiruhilekoan bukatuta izango dela adierazi zuen Rafael Bengoa Osasun sailburuak aurreko astean, Gasteizen. Bengoaren arabera, ekipamendua egin eta gero, ospitaleko zerbitzuak 2011ko amaieran jarriko dituzte abian.

ESANAK

"Debagoieneko ospitaleko bigarren faseko eraikina 2013ko lehen hiruhilekoan hastea da asmoa"

Rafael Bengoa > Osasun sailburua

Joan den abuztura arte, aurreikusitako kopurutik (27,1 milioi euro) 22,5 inbertitu zituzten ospitalean. Ospitaleko lehen fasea abian jarri ondoren, asistentzia eskaria aztertuko du Jaurlaritzak plan funtzionala horretara egokitzeko eta bigarren faseko eraikina zuzen egokitzeko. Bengoak egindako adierazpenen arabera, "bigarren faseko eraikineko obrak 2013ko lehen hiruhilekoan hastea da asmoa eta handik 18 hilabetera proiektuan aurreikusitako zerbitzu guztiak izango dira martxan".

Bestalde, krisi ekonomikoak Debagoieneko ospitaleko lanengan izan dezakeen eraginaren gainean ere galdetu zion Tejeriak Osasun eta Kontsumo sailburuari. Bengoak zera erantzun zion Euzko Abertzaleak taldeko legebiltzarkideari: "aipatutako eragina, aurrekontuari dagokionez, hurrengo ekitaldietan Eusko Legebiltzarrak zehaztutakoaren araberakoa izango da".

SUBIJATI
Umeentzako moda
LIKIDAZIOA, erretiroagatik.
Negozioa eskualdatzen da.
Informazio gehiago:
943 76 42 41
Irizar pasealekua 1 – BERGARA

ARKYPE
AHOLKULARITZA
Negozio berrien hasieran erabateko aholkularitza
Fiskalitatea
Kontabilitatea
Laborala
Inbertsioen aholkularia
BERGARA
Labegaraieta industrialdea
Telleria, 6 bis, 2. bulegoa
ARRASATE
Garibai etorbidea 4
Tel.: 943 76 26 09 / 943 79 94 72
Faxa: 943 76 38 53
arkupe@arkupe.net - www.arkupe.net

> EAJ

'Batu gaitezen' ekimeneko bi ekitaldi Debagoienean

Rafa Uribarren EAJko diputatuak *Parke naturalen gizarteratzea, bertan garatzen diren erabilera guztien kudeaketa* izenburuko hitzaldia egingo du eguaztenean, hilaren 10ean, Oñatiko kultura etxean, 19:00etan. Hilaren 18an, berriz, beste ekitaldi bat izango da Bergaran: Alfredo Retortillorekin eta Iñaki Martinez de Lunarekin mahai ingurua izango da Bergarako Zabalotegi aretoan, 19:30ean. *2011ko Udal eta Foru Hauteskundeak: herritarren joerak aztergai* gaia jorratuko dute gonbidatuek. EAJk debagoiendarrak gonbidatzen ditu aipatutako bi ekitaldietan parte hartzera.



Askargorta, Barruso, Juaristi, Etxaniz eta Muruamendiaratz, hainbat herritarrekin, martitzenean Bergaran. AMAIA TXINTXURRETA

POLITIKA > UDALBILTZA

Udalbiltzako auzipetuei elkartasuna adierazi diete

Epaiketa salatzeko 30 herritar inguruk agerraldia egin zuten martitzenean Bergarako udaletxean; zapatu eguerdirako elkarretaratzea deitu dute

EDU MENDIBIL > BERGARA

Udalbiltzaren kontrako epaiketa salatu eta, bide batez, auzipetutako hautetsi eta langile ohiei elkartasuna adierazteko, 30 bat herritar batu ziren martitzenean Bergarako udaletxean. Agurne Barruso alkatearekin batera, German Muruamendiaratz (EAJ), Lauri Askargorta (EA) eta Mikel Etxaniz (Aralar) zinegotziek hartu zuten parte martitzeneko agerraldian, besteak beste. Herriko beste hainbat kolektibotako ordezkariak ere azaldu ziren komunikabideen aurrean. Biharko, zapatua, elkarretaratzea deitu dute Bergarako San Martin plazan, 12:30ean.

BI ALDARRIKAPEN

Bai Udalbiltzari Bergarako Babes Taldeko kide Yolanda Juaristik hartu zuen hitza guztien izenean eta bi aldarrikapen nagusi egin zituen: alde batetik, 1999ko irailean Euskalduna jauregian Udalbiltzak egindako batzar sortzailean onartu ziren bost helburuen alde lan egitea beharrezkoa dela aldarrikatu zuen, eta ezin dela delitutzat jo: "Helburu eta lan-ildo horietan aurrera egiteagatik hautetsi eta alkateak kriminalizatzea demokraziaren aurkako ekimena da, are gehiago kontuan hartuta epaituak sufragio unibertsalez aukeratutako herri-ordezkariak direla". Bestalde, Udalbiltzaren eta bertako hautetsi eta langile ohien aurka Madrilgo Auzitegi Nazionalean eraman den auzibidea irmoki salatu zuten; "Udalbiltzaren eta auzipetu guztien kontrako akusazioak bertan behera geratzea da zilegi den aukera bakarra".

Epaiaren zain utzi zuten aurreko martitzenean Udalbiltzaren aurkako epaiketa, Madrilgo Auzitegi Nazionalean.

ESANAK

"Udalbiltzako hautetsiak eta alkateak kriminalizatzea demokraziaren aurkako ekimena da"

Yolanda Juaristi > Babes Taldea

KOMUNIKABIDEAK > GOIENAK 10 URTE

Goienak bezero, kolaboratzaile eta bazkideekin ospatuko du 10. urteurrena

Hedabideak berrituta etorriko dira, bai edukiz eta baita itxuraz ere

LANDER MUÑAGORRI > BERGARA

Goiena Komunikazio Taldeak 10 urte betetzen ditu aurten eta hori ospatzeko ekitaldia egingo du Arrasateko Amaia Udal Antzokian datorren eguenean. Arratsaldeko zazpietan hasiko da ekitaldia eta zuzen-zuzenean emango du Goiena Telebistak eta baita *Goiena.net*-ek ere, *streaming* bidez.

Bi helburu nagusi ditu ekitaldi horrek: batetik, Goiena berritua aurkeztea, irudi korporatibo berria eta hedabide berrituak, bai itxuraz eta baita edukiz ere. Esaterako, GOIENKARIA aurrerantzean GOIENA deituko da. Beste helburua da Goienako bazkide, bezero, kolaboratzaile eta lagunekin batera ospatzea eta kolaboratzaile finenak omendu eta egiten duten lana aitortzea.

2000 EZKERO LANEAN

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba elkartea 2000ko ekainaren 27an sortu zen ofizialki, nahiz eta sorrera batzarra martxoaren 31n egin zen Aretxabaletako Otaloran. Bailarako euskara elkarteek eta udalek sortu zuten. Horiek dira kooperatibako bazkideak langileekin batera. Gaur egun 50 langile inguru ditu eta euskarazko tokiko informazioan erreferente da. *Goiena.net*, Goiena Telebista eta GOIENKARIA dira ekoizten dituen hedabideak, baina euskararen normalizazioan beste hainbat alorretan ere badihardu, kulturagintzan eta euskalgintzan batik bat. Azkeneko urteetan gora egin dute Goienako hedabideen irakurle eta audientziak.





zabalik

Iñaki Peña

'Reges debellavit'

Errege barriek Bizkaiko kostaldeko herri eder hori menperatu dabe azken urteotan, "galiar" herrixka zoragarria, edo behintzat herriaren zati handi batek bozkatzen dauana ez dabe errespetatzen hauteskundez hauteskunde.

Halandabe, Baskistango leku euskaldunenen artean dogu XXI. mendeko hasikera honetan, errege barriek hori ezin izan dabe menderatu, ezin izan dabe euren sinboloak hamen paratu eta enparantza nagusia Independentzia izenekoa da, katedrala eta udaletxe artean dagoan plaza kuttuna.

Horrenda cette subjecit: balea handi izugarririk jada ez da ikusten baztar horietan azken gizaldietan, herriko armarrian bat agertzen bada be. Gizakiek sarraskituta, Ozeano Atlantikoko beste latitude batzuetara egin eben iges, gizakiak atzetik beste latitude horietan be ehizan jun jakiezan arren.

"Holakoa da gelditu jakun itsasoa, txikiagoa; arrantza gitxiago dago..."

Terra marique potens: egia da gaur egun zetazeo txikiagoak hurbil xamar bizi dirala, baina holakoa da gelditu jakun itsasoa, txikiagoa alegia. Arrantza gitxiago dago, antxoak be sarraskitu ditugu, herriko egurrezko itsasontzi ia bakarra bisitarientzat ikusgai dago eta gaur egungo arrantzale batzuk hizkuntza bitxietaz egiten dabe berba.

Eta lurrean be herriak indarra galdu dau. Txikitako neure paisaietan bedar metak egoazan basarrien alboan, oso sarritan grisak ziran zeru haien azpian. Horrek eta berdetasunak indar ikaragarria eukien neuretzat. Baina zirimiria desagertzen doian heinean eta euria gero eta bisitari bitxiagoa dan heinean, horiztatutako larrak eta pinu eta eukalipto erreak oraingo paisaietan topatzen ditugu.

Antzinako enperatrizak ez dira itzuli herrira uda pasatzera, baina ez da harritzekoa debagoiendar ugari eta bestelako udatiarrak Lekittora urtez urte hurbiltzea. Probau dituzue Santi tabernako pizzak?

usteak uste

Jokin Bereziartua

Kooltur: ideia ona, itxura hobea

Gariren kontzertuarekin hasi dira Kooltur ekintza elkartearen *Kooltur ostegunak*. Pintxo poteoaren eguena aukeratu dute, eta plan ezin hobea da, beraz, poteoa goi mailako zuzeneko musikaz amaitzeko. Ideia ona da eguenetarako kontzertuak antolatzea, baina ideia onak itxura hobea hartzen du azaroan izango diren taldeak ikusita: eskarmentu handiko musikariak eta estilo aniztasuna nagusi. Herritarren artean interesa piztu du ekimenak, egun gutxian 200dik gora lagun egin ditu-eta Facebooken. Zorionak, bada, antolatzaileei, eta zorte on!

gutunak

Ba ote du zerikusirik hiyab-ak heziketarekin?

Resu Abasolo eta Juana Lopez de Munain
(Irakasleak)
Aretxabaleta

Historian zehar, herrialde askotan emakumeek ohitura izan dute burua eta gorputza ere estalita eramateko; hala, lekuen arabera, beloa, zapia, voilea, burka, echarpea, estalkia, txadorra, niqab-a... ezagutzen ditugu estaldura horretarako; estaldura horrekin askotan menpekotasuna eta errespetua ere adierazten zioten Jainkoari eta gizonezkoari.

Herrialdeak aurreratzen joan diren neurrian ohitura hori ere desagertzen joan da eta gaur egun bakar-bakarrik erlijioak pisu handia duen lekuetara mugatuta geratu da, emakumearen gorputza estaltzearena batez ere.

Orain hasi gara berriro gure kaleetan emakumeak goitik behera edo burua estalita ikusten eta gatazka etxean eta eskolan daukagu, kalean ikusten dena eskolan berragertzen delako. Berdinak al dira eskolarako, hondartzarako, diskotekarako, elizarako, hitzaldirako... erabiltzen ditugun jantziak? Galderak oso sinplea dirudi, baina erantzuna askoz konplexuagoa da. Alde batetik, *janzkerarekin norbera agertzen da*; bestetik, estalduraz jarduterakoan guztien estalduraz eta estaldura guztiez jardun behar dugu: txanoa, txapela, sonbreroa, niqab-a, txadorra, hiyab-a, beloa... Estaldurek beti sumisioa erakusten dute? Eta zer gertatzen da erlijio sinboloa bada? Hezitzailea da norberaren janzkera bizi den tokiko arau sozialetara egokitzea? Eskolan burua estalita izateak ba ote du zerikusirik heziketarekin?

Euskal Eskola Publikoaren legearen eta indarrean dauden gainontzeko legeen arabera ikastetxe guztiek egin, adostu eta onartu behar dituzte, beste batzuen artean, Hezkuntza Proiektua, ikastetxeko baloreak definituko dituen dokumentua eta Elkarbizitza Araudia baloreak zainduko dituen beste dokumentu garrantzitsu bat.

Ikastetxe batek erregulatu dezake ikasleen janzkera? Adostu egingo balu erregulatzea, zalantzarik gabe, bai. Eskola komunitateak eztabaidatu eta Eskola Kontseiluan onartutakoak ez duelako inoiz egingo Konstituzioak babesten duen Heziketaren kontra.

Eskola bateko Elkarbizitza Araudiak esaten duenean *"Burua estali gabe egongo gara gelan"*, heziketaren kontra jotzen du? Inondik ere ez.

Eskolan era askotako arauak jartzen dira. Heziketa Fisikoko arloak, adibidez, janzkera bat eskatzen du. Hizkuntzetan hizkuntza bakoitzaren kodigoa arau zehatzez beteta dago eta ikasi egin behar da. Laborategian lan prozeduraren urratsak eta garbitasuna erakutsi egiten dira, bestela arriskua egon daiteke. Ikasleek edozein arlotan lanak aurkezteko modua arautu egiten da: marjinak, ortografia, gramatika, txukuntasuna, orriratzea, lana defendatzea... Eta zer esan kortesiaren munduan sartzen garenean? Elkarbizitza errazteko badira hamaika erregela: nola hitz egin, nola eskertu, nola zuzendu zuk behar duzun pertsonarengana, puntualitatea zaintzea, behar den materiala prest izatea... Hau guztia ikasi egiten da eta bizitzarako balio du; horregatik, behin eta berriro huts eginez gero Araudian dauden neurri zuzentzaileetara jo behar da. Eskola garaian landutakoa ikasten ez bada, ondorioak beranduago azalduko dira, gizarteko araudiak ere errespetatu egin behar direlako. Izan ere, gizarte zibilaren arauak guztiontzako dira.

Gure ustez, heziketa curriculumaren (kultura, ezagutzak, tresneria...) bidez jasotzen da. Curriculumak, besteak beste, partaideen arteko harmonia, solidaritatea, askatasuna, ardura eta errespetua erakusten du.

Beraz, heziketak arauekin bat egiten du eta janzkera baldin bada garrantzitsua eskolako partaideen arteko berdintasuna eta errespetua bermatzeko, arautu eta bete egin behar da.

IRAKURLEAREN GUTUNAK

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Ibarra kalea 6
20570 BERGARA

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Telefonoa:
943 25 05 01

Faxa:
943 25 05 13

Mila esker, Txikitxu-Arrostaitz

Itziar Arkauz, Monika Montero eta Lourdes Mendia
(Txikitxuko guraso talde baten izenean)
Arrasate

Ezin ukatu bidea luzea eta seguruenik gogorra izan dela 40 urte hauetan euskal dantzak arrasaten errotzen lagundu duen Txikitxu-Arrostaitzena.

Ba, ez da alferrikakoa izan. Begi bistan gelditu zen azaroaren 23an Uarkapen izandako jaialdiaren emaitza eta taldearen eta ikusleen erantzuna.

Lerro hauen bidez Txikitxuko guraso talde batek eskerrak eman nahi dizkie bide honetan egindako lan guztiarengatik... eta jaialdia, chapeau!

Mila esker eta besarkada handi bat, denoi. Baietz beste 40 oinatz dantzan!

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak, Goienka2a eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Oxel Arrieta eta Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

2.KONTZERTUA

azaroak
5
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO

EL TRIO CALAVERA
OÑATI
ROCK PRIVADO
OÑATI-DONOSTIA
FRONT MALABAR
ARRASATE
YMOTEK
ABADIÑO

DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

www.danbaka.com

BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte

LAGUNTZAILEA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK www.hotsak.com
SHOT! grabaciones
PIL-PILEAN
B BARREN
eta kitto! Euskara Elkartea
GAURKO grupo SEIN taldea
Ganesha Tattoo Arrasate
laino SKATEPARK
anboto komunikabideak
drogetenitturri

ANTOLATZAILEAK
Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA

Ikus-entzunezkoei dagokienez, zer, zelan edo zergatik kontsumitzen dute gure bailarako nerabeek? Horri erantzuten saiatu da Amaia Pavon irakaslea, Huhezin aurkeztu duen ikerketan. Arizmendi ikastolako nerabeekin egin du ikerketa eta ondorioetako bat da Internet eta sare sozialak asko darabiltela, batez ere entretenimendurako.

Amaia Pavon > Ikus-entzunezkoen irakaslea

"Batez ere, entretenimendurako darabilte Internet bailarako nerabeek"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Nerabeek ze ikus-entzunezko eta zelan kontsumitzen dituzten aztertu du Amaia Pavon (Arrasate, 26 urte) Huheziko irakasleak. Arritxu Barruso kazetariak elkarrizketatu du Goiena Telebistan eta elkarrizketa paperera ekarri dugu.

Ikerketa lan hau tesiaren aurreko lana da?

Bai, doktore izateko prozesuan egiten den lehenengo urratsa da. Huhezin nahikotasuna lortzeko ikerketa lana.

Ze moduz aurkezpena?

Ondo. Lan nagusia ikerketa bera egitea izan da. Behin hori egin ostean, idatzizko lana bukatuta, aurkeztea geratzen da, eta horixe egin nuen martitzenean fakultatean. Oso gustura geratu naiz.

Urte osoko lana izan da?

Bai, ikasturte oso bat. Iaz irailean hasi genuen ikerketa, eta martitzenera arte.

***Leintz bailarako nerabeak. Ikus-entzunezkoen kontsumoa digitalizazioaren aroan.* Zergatik aukeratu zenuen gai hori?**

Ikus-entzunezkoen arloan dihardudanez Huhezin, telebistaren inguruan dihardut egunero, eta ikusita azkenaldian telebistak eta telebista formatuek izan duten aldaketa Interneten, Lurreko Telebista Digitalarekin eta abar, bada, aldaketa horien aurrean nerabeek ikus-entzunezko ekoizpenak zelan kontsumitzen dituzten jakin gura nuen.

Zelan egin duzu ikerketa?

Arizmendi ikastolako DBHko ikasleak aztertu ditugu. Diseinatu genuen metodologia bat, emaitza batzuk atera ziren eta emaitza horiek interpretatu ostean ondorio batzuk atera ditut.

Aurrelana egin zenuen ikerketa hasi aurretik?

Hasieran, bibliografia aztertu, aurretik honen inguruan ze ikerketa egin den begiratu... eta norberaren ekarpena zein izan daitekeen diseinatu. Ondoren, Almenera joan, galdetegi bat pasatu ikas maila guztietan eta, azkenean, eztabaida mahai bat osatu ikas maila ezberdineko hamar ikaslerekin. Ikerketaren beste zati bat izan da sakoneko elkarrizketa egitea hainbat neraberi.

Bistakoa da aldaketa prozesuan gaudela telebistari eta, oro har, hedabideei dagokienez. Informazio asko dago gai honen inguruan?

Gori-gori dagoen gaia da, bai hemen eta baita nazioartean ere: teknologia berriak, Internet... Jende asko dago ikertzen honen inguruan. Esaterako, Euskal Herriko Unibertsitatean orain dela gutxi aurkeztu dute gai honen inguruko tesia. Jakingura handia dago aldaketa une honetan.

Zer eta zelan kontsumitzen dute Leintzeko nerabeek?

Beste ikerketa batzuetan nerabeek erakutsi dituzten joerei eusten diete hemengo nerabeek ere. Esaterako, Antena 3 dago gustukoen dituzten telebista kateen artean. Bestalde, kontsumo ohitura berriak ere antzematen dira. Esate baterako, telebista ikusten dabiltzala, Interneten dihardutela esaten dute askok. Sare sozialek garrantzi handia dute, asko kontsumitzen dituzte, eta ikus-entzunezkoak lotzen dituzte Interneteko sare sozialetara.

Horrenbeste darabilten sare sozialek eragin dute kontsumo moduetan?

Bai. Ohiko telebistaz gain, Interneten inguruan galdetu genien: ze plataforma darabilten, ze webgune... Eta izarra *Youtube* da. Izan ere, *Youtube* lotzen dute *Tuenti*-rekin, estekak egiten dituzte batera eta bestera... Lagunen artean partekatzen dituzte musikak, komentarioak...

Ze saio kontsumitzen dute gehien?

Ikerketa egin zen garaian, *El conquistador del fin del mundo* ETB2koa nabarmendu zuten. Alde handiarekin. Hurrengo, Antena3ko fikziozko telesail gehienak: *Física o Química, El Internado, Los Simpsons* ere bai...

Gaur egun, telebista kate guztiek eskaintzen dituzte telesail horiek eta beste saio batzuk Interneten. Bideo horiek ikusteko darabilte gazteek sarea?

Telebistan saio horiek berandu ematen dituztelako edo ikusteko aukerarik ez dutelako izan, Internetetik ikusten dituzte hurrengo egunean. Han ikusten dituzte bideoak, baina, batez ere, *Youtube* eta hauetako umorezko bideo laburrak-eta ikusten dituzte. Eta, bestalde, nabarmentzekoa da *El conquistador del fin del mundo* saioa, Internetez ere zuzenean ematen zutenez, han ikusten zutela askok eta askok, besteak beste, *twitteatzeko* eta komentarioak egiteko aukera eskaintzen zuelako.



Amaia Pavon, Goiena Telebistako platoan eguaztenean. ARRITXU BARRUSO

GAZTEEN KONTSUMOA

"Akzioa, umorea eta gazteak protagonista izatea baloratzen dituzte ikus-entzunezkoak aukeratzerakoan"

ETB ETA GAZTEAK

"ETBrendako, nerabea ez da audientzia profil errentagarria"

Gero eta zabalduagoa da *streaming* bidez Interneten saioak zuzenean ikusteko joera, bertan komentarioak egiteko eta parte hartzeko aukera.

Telebista ikusteko modu hori bertan daukagu, baina gure kontsumo ohiturak aldatzea ez da samurra. Nerabeen kontsumoa ere, natibo digitalak izanda ere, ez da horren aktiboa edo parte-hartzailea, joera pasiboagoa daukate.

Beste zertarako darabilte sarea?

Informazioa topatzeko, ikastolako lanak egiteko, posta erabiltzeko... baina gero eta gehiago sare sozialetan ibiltzeko eta bideoak ikusteko. Batez ere *Tuenti* eta *Youtube* darabilte.

Sarea, hortaz, entretenimenduarekin edo aisialdiarekin lotzen dute?

Bai. Ikerketa honetako ondorioetako bat horixe da: Internet, besteak beste, informatzeko tresna baldin bada ere, bideoa edo ikus-entzunezkoa sartu denetik entretenimendurako darabilte, batik bat.

Euskarazko ekoizpenaren kontsumoa ere aztertu duzu eta datuak kezkagarri samarrak dira, ezta?

Horren gainean galdetu zaie gazteei eta ETBko programazio zuzendariarekin egindako solasaldiarekin kontrastatu dugu. Hari galdetu zitzaion ze euskarazko saio izango liratekeen nerabeek gehien kontsumitzeko modukoak eta, gero, gazteen benetako kontsumo ohiturekin aurrez aurre jarri genituen.

Zergatik ez dituzte kontsumitzen nerabeek euskaraz ekoiztutako produktuak?


Akzioa, umorea, 17-18 urteko gazteak protagonista izatea baloratzen dituzte ikus-entzunezkoak aukeratzerakoan. Hortaz, galdetu zitzaien *Goenkale, Mihiluze* eta *Wazemank* saioen inguruan eta askok ez zituzten ezagutu ere egiten eta, oro har, gustukoenen artean oso behean agertzen ziren, ETBko horiek eta *Kirolez kirol* ere bai.

Zein da arazoa: ekoizpen txikia dago ala gutxi kontsumitzen da ala batak bestea dakar?

Gurpil zoroa da. Esaterako, gogorra izan zen ETBko programazio zuzendariak esatea nerabea ez dela audientzia profil errentagarria, eta, are gutxiago, gutxiago euskaraz egin behar bada, kuantitatiboki murriztu egiten delako audientzia. Esan zigun daukaten diruarekin ezin ditzaketela sortu edukiak nerabeendako propio. Eskaintzarik ezak eragiten du kontsumorik eza eta kontsumorik ezak eskaririk eza.

Herriak

Arrasate > 10-11 **Bergara** > 12-13 **Aretxabaleta** > 14-15 **Eskoriatza** > 15
Oñati > 16 **Antzuola** > 17 **Aramaio** > 18 **Elgeta** > 19 **Gatzaga** > 19



> BERGARA
Herritarrek egindako 'Erremeixuak' DVDa kalean da **> 12**



> ESKORIATZA
Pirritx, Porrotx eta Marimotots gertu daude ikuskizuna estreinatzeko **> 15**



> ARAMAIO
1950 aurretiko argazkiekin artxiboa egin nahi du Udalak **> 18**



> ELGETA
Intxortako frontean bisita gidatua egingo dute domekan **> 19**

OÑATI > ONDAREA

Aloña Mendi taldeak hartz arre baten garezurra aurkitu du, oso-osorik

AURKIKUNTZA ZAILA
Hartz arrea oso zaila da aurkitzen, bakarka hibernatzen zuelako

IKERTZEN SEGI
Egun, hiru edo lau kobatan galeria berriak esploratzen dihardute; Ubaoko Urzulo leizean dabiltza orain jo eta ke



Fraidebaso 01 kobazulorako sarrerak 20 metroko jauzia dauka; horregatik zegoen esploratu barik. ALOÑA MENDI ESPELEOLOGIA TALDEA

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

Historiaurreko sekretuak badira oraindik Debagoienean. Lur azpian daude eta batzuen esploraziorako grinaren beharra dute azaleratzeko. Lan horretarako gertu daudenak badituGu gurean: Aloña Mendi Espeleologia Taldea, esaterako. Aurkikuntza aipagarriak egin ditu taldeak azken asteotan. Arantzazu inguruko *Fraidebaso 01* izeneko leizean historiaurreko zenbait animaliaren hezurrak aurkitu dituzte. Koba esploratu gabe zegoen, sarbidea zaila delako –ikus argazkian–; 20 metroko lehenengo saltoa jaisteko beharrezkoa da soka.

Hala, leizea ikertzen eta topografiatzen ari zirenean, azkeneko galeriaren bukaeran sorpresa ederra zuten zain espeleologoek: hartz baten garezurra oso-osorik eta beste hezur batzuk. Euskal Herriko Unibertsitateko Historiaurreko Departamentuko arkeologo bati argazkiak bidali eta prest agertu zen leizean sartu eta behar den moduan hezurrak jasotzeko. Halaxe egin zuen. Eta arkeologoak esandakoaren arabera, hezur gehienak hartz arre batenak dira –*oso pardo*–, hartz handia, arra eta oraindik gaztea. Beste hartz oso gazte baten hezurrak ere aurkitu dituzte, lehena baino gazteagoa. Leizeetako hartza –*Ursus spelaeus*– hartz arrea –*Ursus arctos*– baino zaharragoa da, baina azkenekoaren datuak urriagoak dira. Kobazuloetako hartza oso ezaguna da Oñati inguruan, Arrikrutzeko haitzuloan aurkituak izan dira ehunka animaliaren aztarnak. Izan ere, animalia horrek taldeka hibernatzen zuen urtero leize berean. Ohitura hori zela eta, milaka urte igaro ostean, hildako leizeetako hartzen pilaketa handi horiek ezagunak dira Europa osoan. Hartz arrea, baina, bakarka lokartzen zen neguan eta, ondorioz, haien hezurduren aurkikuntzak askoz ere urriagoak dira.

ESANAK

"Lur azpiko sekretuak argitaratzeko lana beharrezkoa da guztiona den ondarea ezagutu eta babesteko"

Andoni Olalde > Aloña Mendi Espeleologia taldeko kidea

GARAI EZBERDINETAN SARTU ZIREN
Aurkitutako bi hartzak garai ezberdinetan sartu ziren *Fraidebaso 01* koban. Lehenean, haurdun zegoen eme bat koban sartu, lurrean zuloa egin, habia belarrez estali eta abendu eta urtarrila bitartean kume bat edo bi izan zituen, Aloña Mendikoek jakinarazi dutenez. Izan ere, aztertu dituzten hezurrek erakusten dute hiru hilabete inguru zituen hartz kume bat hil egin zela. Bestalde, bigarrena ar gazte bat zen, *Fraidebaso 01*-ra negua igarotzeko asmoz sartu zena. Gaixo edo hibernazioan gosez hil zela uste dute.

Andoni Olalde espeleologia taldeko kideak dioenez, "oso garrantzitsuak" dira "denondako" *Fraidebaso 01*-eko aurkikuntzak: "Lur azpiko sekretuak argitarazeko espeleologoek egiten duten lana beharrezkoa da, guztiona den ondarea hobeto ezagutu eta babesteko".

AURKIKUNTZEN GARRANTZIA

Duela 10.000 urte inguru Oñatiko ekosistema ezagutzeko lagungarri dira aurkikuntzak

Aloña Mendi espeleologia taldeak aurkitzen duen material arkeologiko eta paleontologiko guztia –oreinen eta basahuntzen hezurrak ere aurkitu dituzte– ondare publikoa da eta eurek ez dute ezer ere gordetzen. Material horren zaintza eta azterketa Donostian egiten da. Naturaren eta gizartearen bitartekari lanak egiten dutela esan daiteke, beraz. Bada, bejondaiela egindako lanagatik, *Fraidebaso 01* koban egindako aurkikuntza paleontologiko horrek berebiziko garrantzia dauka-eta duela 10.000 bat urteko Oñatiko ekosistema ezagutzeko.

Esploratzen jarraitzeko asmoa dute, gainera: orain Ubaoko Urzulo leizean dihardute lanean, jo eta ke.



Olalde eta Ugarte, aztarnekin. ALOÑA MENDI



Uztailaren 26an zabaldu zuten Arrasateko Mendebaldeko Saihesbidea, honen aurretik, oinezkoek estreinatu zuten. GOIENKARIA

ZERBITZUAK > ARRASATEKO MENDEBALDEKO SAIHESBIDEA

6.000 ibilgailu pasatzen dira egunero Olandixotik

Astelehenetik egubakoitzera arteko datuak dira horiek; asteburuan, berriz, kopurua txikitu eta egunean 2.000 ibilgailu pasatzen dira

UBANE MADERA> ARRASATE

"Hasiera honetarako aurreikusi baino erabilera handiagoa dabil izaten. Eta aurreikuspenak gainditzeak argi uzten du errepide berria modu ezin hobean dabilela erantzuten bazegoen eskari bati. Horrez gainera, Arrasateko herri barrutik zirkulazio handia kendu du eta horri esker segurtasunean eta inguruko bizi kalitatean hobekuntza izan da".

Adierazpen horiek erakusten duten moduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak modu "oso positiboan" baloratu du Arrasateko Mendebaldeko Saihesbideak inauguratu zutenetik orain arte izan duen erabilera.

EGUNEROKO JARDUNERAKO

Joan den uztailaren 26an zabaldu zuten Arrasateko saihesbide berria, eta datu oso esanguratsuak eskuratu ditu orain arte: 6.000 ibilgailu egunero, astelehenetik egubakoitzera. Eta asteburuan, berriz, egunero 2.000 ibilgailura gutxitzen da saihesbidearen erabilera.

Horrek erakusten duen moduan, duda barik eguneroko jardunerako erabiltzen da, batez ere, saihesbide hori.

BI MILIOI IBILGAILU URTEAN

Gainera, eguneroko zifrak extrapolatuz gero, zifra are ikusgarriagoak ateratzen dira: hilero 160.000 ibilgailuk erabiltzen dute Olandixoko tunela, eta urtean, berriz, bi milioi ibilgailu inguruk erabiliko dute.

Hori bai, zifrak kalkulatzerakoan, ez dute abuztua aintzat hartu, kontuan hartuta Arrasaten herritar asko kanpora joaten dela opor sasoi horretan.

HAINBAT URTE BEHAR IZATEN DIRA

Kontuak kontu, Diputazioak nabarmendu gura du orain arteko zifrak "garrantzitsuak" direla; Diputazioko ordezkarien esanetan, "errepide berri batek normalean hainbat urte" behar izaten ditu-eta "aurreikuspenak betetzeko". Olandixoren kasuan, gertu dago egunean 7.000 ibilgailu izatetik, eta hori hiruzpalau urte barru gertatuko zela kalkulatu zuen Diputazioak.

Diputazioko ordezkarien ustez, zifra horiek agerian uzten dute errepide horretarako zegoen eskaera, eta gainera, uste dute "datozen urteotan hazten jarraituko dela" saihesbidearen erabilera.

BI KILOMETRO LUZE

Bi kilometro luze da Arrasateko Mendebaldeko Saihesbidea; Olandixoko tunela dauka tartean, 860 metro luze dena. Diputazioak 40 milioi euro pasa inbertitu zituen saihesbidean eta uztailaren 26an zabaldu zuten.



LAPURRETA > CORREOSKO BULEGOAN

Pelikuletako lapurreta saiakera, Correosen

Kanpotik zuloa egin eta elektrizitate harien bidetik sartu ziren asteburuan

U.M. > ARRASATE

"Zuzenean joan ziren kutxa blindatura, bide motzenetik; eta ez da erraza hura aurkitzea, jakin ezean non dagoen", kontatu du Correosko langile batek. "Diru asko dugu guk hemen, banketxea gara eta Western Unionen dirua ere hemen dago...", beraz, lapurrek ondo zekiten zer lapurtu. .

ALARMARI ESKER, OSPA

Edozelan ere, kutxa blindatua irekitzen saiatu aurretik alarmak jo eta "sartu ziren leku beretik irten ziren, sabaitik, ze ez dituzte pertsianak indarrez zabaldu; atzeko kalezuloko sabaian zuloa egin eta elektrizitatearen bidetik sartu ziren, mehe samarrak izan behar zuten lapurrek, ze bestela...".

Asteburuan izan da lapurreta saiakera hori. Correosko langileak martitzen goizean lanera joatean konturatu ziren gertatutakoaz, "sabaiko zati bat zabalik eta mahaiak-eta, zikinzikin zeudelako".



Kalezuloaren sabaian egindako zuloa. U.M.

> GERTAKARIA

Mozkortuta zegoela, aurreko autoari jo eta bere autoa errepide erdian utzita tabernara joan zen

Domeka gauean (23:50) gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak Zarugalden, autoarekin aurreko autoari kolpea eman ostean bere autoa bide erdian utzi eta taberna batera sartzearren; eta, gainera, mozkortuta zegoen. Garabiari deitu behar izan zioten autoa erretiratzeko. Gizona epaiketaren zain dago, osasun publikoaren kontrako delitua egotzita. Lekukoen arabera, bozina hotsak entzuten hasi eta leihora ateratzean ikusi zituzten bi gizonezko eztabaida bizibizian. Zarugaldeko ia bizilagun guztiak aterarazi zituen zaratak.

ZER DIOTE ARANTZAZUKO ADISKIDEEN ELKARTEKOEK?

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO ETXEKOANDRE ETA JAUNEK?

GIZARTEA > INTEGRAZIOA

Etorkinei gurean toki bat egiteko heziketa eskainiko du Ekinek

Martxan da etorkinendako eta baztertze arriskuan daudenendako heziketa modulua

Ekinek urtero antolatzen du ekimena INEMen dirulaguntzarekin; taldea osatu guran dabiltza

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Ekin Emakume elkarteak aurrera jarraitzen du gurean bizi diren etorkinak integratzeko lanean. Izan ere, dagoeneko martxan da aurten ere etorkinendako eta baztertze arriskuan dauden pertsonendako harrera eta formazio modulua. INEMek finantzatutako ekimena da eta datozen sei hilabeteotan etorkin eta baztertuei gure kultura, ohiturak eta izaera erakustea du helburu.

Hainbat gai aztertuko dituzte heziketa modulu horretan: euskara eta euskal kultura, Atzerritar Legearen gaineko informazioa, lana bilatzen trebatzeko ikastaroak, sukaldaritza eta talogintza, besteak beste. Irteerak ekimenaren alderdi garrantzitsuak dira, museoetara, kobazuloetara... Baita era ludikoan gozatzeko irteerak ere: iaz, esaterako, sagardotegira joan ziren. Bestalde, herrian bertan egiten diren beste ikastaro batzuen berri ere emango diete.

Gainera, abenduaren 26an kulturen arteko jaialdia egingo dute parte-hartzaile guztiekin.

EKIMENA IRAGARTZEA, "LAN ZAILA"

Era berean, Arrasaten dauden zerbitzuen gaineko informazioa eta orientazioa ere helaraziko diete: Udalaren gainekoa, liburutegia, kiroldegia, BAZ... Ekinekoek jakinarazi dute askotan "galduta" egoten direla edozein tramitazio egiteko orduan. Bestalde, halako ekimenetan zailena izan ohi da etorkinak erakartzea. Heziketa moduluaren berri ematea "lan zaila" da-eta, antolatzaileen esanetan. Ekimena nola iragarri? Bada, aurreko urteetan parte hartu dutenen bitartez bereziki, baita etorkinak egon ohi diren lekuetara joz ere; Caritasera, esaterako. Izena emateko elkartera joan behar da.



Ekin elkartekoek taloak egiten irakatsiko diete etorkinei, besteak beste. EKIN

> MUSIKA

Greg Dulli 'frontman' handiaren saioa bihar Amaian, 20:00etan

Afghan Whigs talde iparamerikarreko abeslari moduan ospetsu egin den Greg Dulli abeslaria Amaian izango da bihar (20:00). Bira akustiko baten dator, Dave Rosser-ekin –Twilight Singers– eta Rick Nelson-ekin –Polyphonic Spree– batera. Dulli bizia da oso agertokian; *frontman* handia da, ikus-entzulea axolagabe uzten ez duen horietakoa. Rocka eta soula ardatz, datorren diskoan aterako dituen kantuak aurkeztuko ditu.

> GASTONOMIA

Idiazabal jatorriko gaztaren dastatzea gaur Kulturaten

Debagoieneko jardunaldi gastronomikoen barruan Idiazabal jatorriko gazta dastatzeko aukera izango da gaur Kulturaten, 19:00etatik aurrera. Ekitaldira joan gura duenak izena eman beharko du aurrez, lekuak mugatuak dira-eta. Izena emateko honako telefono honetara deitu behar da: 943 79 64 63. Izena emateko beste modu bat ere badago: *turismo@debagoiena.net* helbidera idatzita, hain zuzen.

JENDARTEA > OSASUNA

'Erremeixuak' DVDa egin dute, osasuna munduko ondasuna delako

Bi orduko iraupena du eta 12 lagunen testigantzen bidez gaitz askorendako 100 erremedio batzen ditu


Mikel Irizar (Kutxa), Barruso alkatea, Andoni Goiti (egilea eta Goienako ordezkaria) eta Belen San Torkuato (egilea). M.B.

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Lepo bete zen eguazten iluntzean Aroztegi aretoa *Erremeixuak. Osasuna munduko ondasuna* delako DVDaren aurkezpenean.

Anaje Narbaitzaren ideian oinarrituta, Narbaitzak berak eta Andoni Goitik eta Belen San Torkuatok garatutako lana da, hiru urtean barrena.

Bi orduko iraupena duen DVD horretan gure herri kulturaren arlo garrantzitsu bat jorratu dute, gaixotasunak osatzeko erabili ohi diren sendabelar eta bestelako erremedioak aztertu eta jaso dituzte, hain justu ere; guztira, 100 erremedio.

Informazio guztia batzeko elkarrizketatan oinarritu dira, Antzuola, Bergara eta Zumarragako 12 laguni egindako elkarrizketatan. "Ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi transmititu direnak guk ere hala jaso nahi izan ditugu, euskalkia ere errespetatuz", esan zuen Belen San Torkuatok, egileetako batek, aurkezpenean.

SALGAI JARRI DITUZTE

12 lagunon testigantzen bitartez erremedioak gertatzeko modua aurkezten dute DVDan, eta lau ataletan dago banatuta: arnas aparatuko eta gibeleko gaitzak, azaleko arazoak, minak eta abereen gaitzak.

Proiektuari lagundu diote Udalak, Kutxak eta Goienak eta erakunde eta enpresotako ordezkariak ere aurkezpenean egon ziren.

ESANAK

"Belaunalditan eta ahoz aho transmititu direnak guk ere hala jaso nahi izan ditugu"

Belen San Torkuato > Egileetako bat

DVDok eskuragarri daude 10 eurotan kultura etxean, Hurbil eta Ekilur belar dendetan eta Elkar liburu dendan.

oharrak

KINTADA

> 1939an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 13an

Pertxan egingo dute, 14:30ean. 13:00etan txikiteoa egongo da Fraiskozurin. Izenematea da hilaren 9a baino lehen: Eulalia Elgarresta (943 76 24 79) eta Pello Garitano (943 76 28 58).

KINTADA

> 1948an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 20an

Zabalan egingo dute. Urbanoa 21:00etan abiatuko da Santa Marina ostetik. Izenematea da azaroaren 17a baino lehen 55 euro sartuta Euskadiko Kutxan.

KINTADA

> 1938an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 13an

Azpeitxin egingo dute. Izena emateko, jo antolatzaileengana: Miguel Lazkano eta Mari Carmen Leturia.

KINTADA

> 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 21ean

Zumelagan egingo dute, 14:30ean. Izena emateko 12 euro sartu behar dira hilaren 17a aurretik Euskadiko Kutxan.

KINTADA

> 1969an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 20an

Tartufon egingo dute. 13:00etarako egin dute hitzordua, Deportivon. 14:00etan talde argazkia egingo dute pilotalekuan eta 14:30ean autobusa hartuko dute bazkaltzera joateko. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da, Deportivon, 20 euro aurreratuta.

KINTADA

> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 20an

Txarrantxan egingo dute, 21:00etan. 23:30ean dantzaldia egongo da. Izena emateko azken eguna azaroaren 18a da, Txarrantxan eta ONCEko kioskoan, 15 euro aurreratuta.

KINTADA

> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 13an

Zumelagan izango da. Izenematea 943 76 22 22 zenbakian.

Bergarako Udala

Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomi jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
4. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.

Hori guztia, Udalbatza Osoak 2010eko urriaren 25eko bileran hartutako erabakiari jarraituz egiten da. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz, behin-behineko erabaki hau 30 lanegunez jarriko da ikusgai jendaurrean Udaletxeko iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jakinarazi zaio jendeari 2010eko urriaren 28an argitaratutako iragarkiaren bitartez eta urriaren 29tik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2010eko urriak 28
Alkatea



ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Pol-Pol mendi elkarteko zuzendaritza taldeko kideak eguenean, Miguel Altunan batzarra hasi aurretik. XABIER URTZELAI

KIROLA > MENDIZALETASUNA

Pol-Pol mendi taldeak egoitza behar du

Uztaila ezkero ez dute herritarrak non atenditu; ezohiko batzarra egin dute gaia aztertzeko

M.B. > BERGARA

Pol-Pol mendi taldeak ezohiko batzarra egin zuen eguenean, uztail bukaera ezkero egoitza barik dago-eta . Kezkatuta daude gaiarekin, dauden egoeran ezin dietelako herritarrei arreta zerbitzu egokirik eskaini, besteak beste. Idazkaria, esaterako, etxetik ibiltzen da lanean, eta laster zabalduko da federatu txartelak egiteko sasoia (400 federatzen dira urtero). Egoitza ez izatearen beste ondorioetako bat da aurten ezin izango dutela bigarren eskuko mendiko materialaren azoka egin.

Egoitza bat errentan hartzeko merkatuan dagoena begiratu duten arren, garesti daude eta zuzendaritzak ez du bideragarri ikusten; ezta lokala erostea ere.

Udalera ere jo dute egoitza eske. Hain justu ere, batzar egunean jaso zuten erantzuna: "Pol-Pol argazki taldeak erabiltzen duena partekatzeko proposatu digu Udalak, baina ez dugu garbi ikusten, batik bat biek aldi berean egoitza erabiltzeko beharra dugunetan".

Egoitzaren arazoari irtenbidea emateko bost laguneko batzordea eratzea erabaki zuten ezohiko batzarrean.

> OSPAKIZUNA

Aranzadik ikasle ohien eguna ospatuko du hilaren 27an

Ekainaren 19an Aranzadi Ikastolak 40 urte betetzen ditu. Hori dela eta, ekintzez beteriko ikasturtea antolatu dute. Ekintza horien artean, ikasle ohien eguna ere prestatu dute azaroaren 27rako. Urteotan guztietan Aranzaditik pasatu diren ikasle belaunaldi ezberdinak elkartuko dira egun horretan. Triki-poteoa, bazkaria, dantzaldia eta abar egongo dira. Bazkarirako txartelak salgai daude Arrano, Depor, Ariznoa eta frontoiko tabernetan, 30 eurotan

> MERKATARITZA

Bedelkar elkarteko 21 dendak azoka egingo dute aste bukaeran

III. azoka egingo dute Udal Pilotalekuan. Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, izango da azoka. Hain zuzen ere, bihar 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta etzi, 11:00etatik 14:00etara. Denboraldiko jeneroa izango dute salgai, eta, gainera, deskontuak egingo dituzte. Azokako giroa alaitzeko musika ere egongo da, eta baita umeendako puzgarriak pilotalekuko sarreran.

auzoko programa

Parte hartu Topagunearen lehiaketan eta sariak jaso

Hemen, irakurle, Auzoko programaren barruko lehiaketaren bigarren galdera: *Herrian hitz egiten diren hizkuntza guztietatik esan bosten izena. Nola esaten da hizkuntza horietan 'kaixo'?*

Saria eskuratzeko, idatzi erantzuna, izenabizenak eta telefono zenbakia papertxo baten eta sartu Jardunen, udaletxean edo igerilekuan dauden postontzietan.

Aurreko asteko galderaren erantzun zuzena da: *b) 23 eta 55 hizkuntza bitartean dago Bergaran hitz egiten den hizkuntza kopurua.*

auzoko

www.auzoko.topagunea.com



POLITIKA > INAXIO GARRO, GOIENA TELEBISTAN

"Ekimen berriendako gunea egongo da industrialdean"

Inbertsioendako laguntzak emango dituzte, baita enpresa eratzeko eta kontratuendako ere

Urkuluko zirkulazioa bideratzeko lagun bat hartzeko asmoa dago



Inaxio Garro, *Magazinea* saioan, martitzenean. ENEKO AZKARATE

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Orain dela aste pare bat onartu zituen Udalak ekimen berriendako dirulaguntzak. Hasierako inbertsioak egiteko izango direla –gehienez %60, 8.000 euro arte– iragarri zuen Inaxio Garro alkateak martitzenean Goiena Telebistako *Magazinea* saioan. Gainera, enpresa eratzeko gastuak Udalak bere gain hartuko ditu eta kontratatutako langileak izanez gero –urte osorako edo lan jardun osorako kontratazioak–, diruz sarituko dituzte.

Bestalde, Aluminios de Precision lantegia izandako eraikina ekimen berri horietarako erabiliko dutela iragarri zuen: "Ia hutsik dagoen eraikina Spri Lurrena da, eta proposatu diogu zati bat uzteko zazpi edo hamar urterako. Udalak, berriz, konpromisoa hartu du egokitu eta eraberritzeko".

LANGABEEI LAGUNTZEN

Enpleguarekin jarraituta, alkateak onartu zuen egoera ekonomiko onik ez dugula bizi eta herritar asko geratu dela lan barik. Horregatik, Udalak konpromisoa hartu du lanpostuak sortzeko, "behintzat aldi baterako", eta aurten 15 laguni eman diote lana: zortzi peoi –horietako lau asteon hasi dira lanean–, bi ofizial eta bost langile kualifikatu. "Zorionez, iazko irailarekin alderatuta, %15 langabe gutxiago zeuden aurten irailean. Eta Gipuzkoako hainbat herrirekin alderatuta –Hernani, Zarautz, Tolosa...– gurean behera egin du langabeziak. Horrek ez du esan nahi egoera ona denik".

ARKUPEREN LIZITAZIOA

Asteon bete dira bi urte Ama Lur enpresarekin kontratua sinatu zuela Udalak Arkupe kudeatzeko. Beti dagoela hobetzekorik esan zuen Garrok, baina pozik azaldu zen Ama Lurren kudeaketa estiloarekin: "Eta herritarrak ere nahiko pozik daudela uste dugu, iaz egindako inkestan –518 laguni– hala adierazi zuten eta". Liburutegiaren zerbitzuak izan du hobetzeko eskaera gehien eta Udalak bat egin du eskaera horiekin. Enplegu Planaren bitartez langile bat hartu da ordutegia hobetu eta osatzeko. "Izan ere, asko dira liburutegira doazen herritarrak eta erantzun oso ona izan du".

Arkuperen kudeaketa lizitaziora atera gura zuela Udal Gobernuak esan zuen, baina arazo bat dela-eta ezin izan dela. Hala ere, ez dute aterik itxi eta joan den astean bilera egin zuten Udaleko, Ama Lur enpresako eta Ba! kultura mugimenduko ordezkariek: "Ez dut itxaropen faltsurik sortu gura, baina datorren azaroa baino lehen lizitaziora ateratzea espero dugu".

Bestalde, iaz egindako Kultura Planari jarraituta, hil honetan bertan kultura batzorde herrikoia osatu gura dute eta orduan adostutako helburu estrategikoak bideratzen hasi.

ESANAK

"Iazko irailarekin alderatuta %15 langabe gutxiago zeuden aurten. Horrek ez du esan nahi egoera ona denik"

ESANAK

"Guk eskatu dugu bizkortzeko kirol etxeko lanak, uztail erdirako bukatu eta hilabete eta erdian janzteko gero"

KIROL ETXEA, IRAIL ERDIRAKO

Kirol etxeko lanak atzeratuta doaz, zimendatze lanek arazoak eman dituztelako: "Irail erdirako obra bukatuta izango dela esan digute, baina guk eskatu dugu bizkortzeko lanok uztail erdirako bukatzeko. Gero hilabete eta erdian jantzi eraikina eta irail erdirako erabilgarri egoteko", argitu zuen alkateak. Baina oraindik eskaera horren erantzunaren zain daudela esan zuen.

URKULUKO ZIRKULAZIOA ZAINDU

Urkulu ingururako dagoen planaren gainean ere egin zuen berba Garrok: "Udalaren asmoa da bizilagunen eta bisitarien arteko bizikidetza arazoa konpontzea eta horretarako neurri batzuk jarriko ditugu martxan". Hala, azken urteotan oso utzita egon dela onartu zuen eta "zabortegia" izan dela. Bizikidetza arazoa konpontzeko lagun bat edo bi hartzeko asmoa agertu zuen: "Batez ere aste bukaera eta jai egunetako zirkulazioa kontrolatzeko".

Bukatzeko, ez zuen argitu datorren udal hauteskundeetan Aralarren zerrendaburua izango den: "Aralarrek neuregan jarri du konfiantza. Bi edo hiru asteren bueltan erabakia hartuta izango dut".

KONTZERTUAK

Akordeoi Orkestra Gaztela aldera doa

Bihar Zamorako Toro herrian eta etzi Salamancako Plaza Nagusian joko dute

M.A. > ARETXABALETA

Aretxabaletako Akordeoi Orkestra Gaztela eta Leon aldera doa aste bukaeran, hainbat kontzertu eskaintzera. Bihar, Zamorako Toro herrian izango dira (20:00), La Torre antzokian, hain zuzen. Eta etzi, domeka, Salamancako Plaza Nagusi dotorean emango dute kontzertua (19:30), Antzinako Liburuen Azoka dela eta.

Juanjo Orobengoak zuzendutako taldea 16 kidek osatzen dute eta akordeoilariekin batera perkusio-jotzaileak ere joango dira. Eskainiko dituzten musika-lanak hainbat estilotakoak izango direla jakinarazi du Orobengoak, eta berriren bat estreinatuko dute. Gabon inguruan Aretxabaletan ere emango dute kontzertua: abenduaren 18an, hain zuzen ere.

> MENDIA

Murrukixo bazkideen txartelak gertatzen dabil egunotan

Murrukixo Mendizale Elkarteak eskutitza banatu die bazkideei asteon. Bertan zehaztu diete datorren urteko federatze aukerak zeintzuk diren, eta horien kostua; eta bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kopurua. Txartelak, ostera, ez dituzte eskutitz bidez bidaliko, Durana kalean duen egoitzatik pasatu beharko dute bazkideek hartzera.

Bestalde, norberaren datuetan aldaketak egin gura dituztenek azaroaren 23a arte du epea.

> MERKATARITZA

Aretxarteren urriko zenbaki saritua 37.982 da, Begiran banatua

Aretxarte merkatarien elkarteak egin du urriko txartelen zozketa eta zenbaki saritua 37.982 da –aurkezteko azken eguna, hilaren 15a–, Begira argazki-dendan banatua. Ordezko zenbakiak ere atera ditu: 55.680, Haurrak umeendako arropa-dendan banatua –epea, azaroak 22–; eta 53.768, Iosu harategian banatua –epea, azaroak 29–.Saridunak 300 euroko txartela jasoko du Aretxarteko dendetan gastatzeko.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV TÜV Internacional Grupo TÜV Rheinland EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• **Juridikoa:**
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak,
•**Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•**Fiskala:** Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•**Kontalibilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • *www.zenbaki.es*



Ezker Abertzaleko kideak osoko bilkura jarraitzen martitzenean. M.A.

UDALA > OSOKO BILKURA

Tubos alderdiaren arau aldaketari egindako alegazio baten zatia onartu dute

Euskal Herriko egoera berriaren gaineko mozioa onartuta, PSE aurka azaldu arren

M.A. > ARETXABALETA

Martitzenean, hilak 2, ezohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak eta zortzi kide elkartu ziren –EAJkorik ez zen agertu.

Hirigintzako kontu bi zituzten onartzeko. 4A edo Tubos lantegia egondako alderdiaren arau aldaketari maiatzaren 3an egindako osoko bilkuran eman zioten hasiera, baina gero bost alegazio aurkeztu zizkioten –tartean Hamaikabat alderdiak– eta horiek aztertzen jardun dute hilabeteotan. Alegazio baten zatia bakarrik onartu zuen martitzenean Udalak: bertako eraikina hezkuntzarako izatea eta titulartasun publikokoa. Gainerakoak ez dituzte onartu eta honela zehaztu dute bertan egitekoa: 150 etxe libre, 50 etxe babes ofizialekoak eta beste 50 tasatuak; 435 aparkaleku pribatuak eta 174 publikoak; 2.850 metro koadro eraikigarri unibertsitatearendako; eta 290 metro koadro gizarte-kulturarako ekipamendurako. Hori onartuta, berriro eman diote hasiera prozesuari eta alegazioak aurkezteko epea zabaldu.

Bestetik, Kurtzebarri eskolako alderdiaren arau aldaketa hastea ere onartu zuten. Hala bada, oraingo eraikinak 547 metro koadro gehiago izan ditzan prozesua jarri dute abian.

AGERTOKI BERRIA FINKATZEA

Bestalde, EA alderdiak Euskal Herrian agertoki berria finkatze aldera mozioa aurkeztu zuen Ezker Abertzalearekin adostuta. Mozioan eskatzen dutenen artean daude: Euskal Herrian ireki den prozesua garatzen laguntzeko konpromisoa hartzea; Ikasle Abertzaleak eta Gazte Independentistak taldeetako kideen atxiloketak salatzea eta jasandako inkomunikazio egoerak erauztea.

Aralar eta Ezker Batua-Berdeak mozioaren alde agertu ziren: "Agertoki eta garai berriak bizi ditugulako". Alderdi Sozialistako zinegotziek, ostera, aurka bozkatu zuten, "konflikto politikoa deitzea ETAri mesede egitea" dela esanaz, eta gaineratu: "Defentsa ekintzei ez diete ezetzik esan eta enpresariek estortsioak jasaten jarraitzen dute…".

Ezker Abertzaleko kide bi izan ziren osoko bilkuran eta esan zuten Gernikako akordioarekin ikusi dela bidea nondik doan: "Normalizazio eta bakerako pausoak emateko erabakia hartu dela erakutsi da". Aldeko sei botorekin onartu zen mozioa.

PRENTSA-OHARRA

Hamaikabat alderdia ez dago ados

Hamaikabat alderdiak alegazioa aurkeztu zion Tubos lantegia egondako alderdiaren arau aldaketari maiatzean, eta egunotan salatu du oraindik ez duela erantzunik jaso. Arau aldaketa espekulatibotzat jo zuen Hamaikabatek orduan, "etxe gehiegi, altuera handikoak eta 11 solairuko dorre bat" proposatzen delako. Aparkaleku gutxi zirela ere esan zuten, eta "kutsatutako lurren deskontaminazioa behar-beharrezkoa" zela.

Udalak promotoreekin sinatutako hitzarmena legez kanpokoa zela ere salatu zuen. Eta orain, hau gaineratu du: "MUri emandako obrak egiteko baimena baliteke balio bakoa izatea, lur kutsatuen arazoa behar bezala ez delako kontuan hartu". Hori horrela, obra baimenak legea betetzen duela adierazten duen txosten juridikoa eskatu dio Udalari eta lurren kutsaduraren gainean apirilean udaletxera heldutako txostena ezagutzera ematea.

IKUSKIZUNA > PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Pailazo ezagunenen azken lana, hilaren 27an

Ikastetxeetatik soberan geratzen diren sarrerak azaroaren 17an salduko dituzte kiroldegian (08:00)

JOKIN BEREZIARTUA > ESKORIATZA

Ongi etorri, Pupu eta Lore! ikuskizun berria aurkeztuko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek azaroaren 27an. Kiroldegian izango da ikuskizuna, 17:30ean. Jakina da Euskal Herriko pailazo ezagunenek, doazen lekura doazela, arrakasta bermatzen dutela eta euren ikuskizunetarako sarrerak lortzea ez dela lan erraza izaten.

Hala, Udalak eta gurasoen elkarteak sarrerak iaz moduan banatzea erabaki dute: Eskoriatzako bi ikastetxeetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 6. mailara arteko ikasleen artean banatuko dituzte. Ikasle bakoitzak gehienez bi sarrera eskatu ahalko ditu eta horretarako espresuki prestatutako orria bete eta dirua entregatu beharko dute. Azaroaren 12a da horretarako azken eguna.

SOBERAKO SARRERAK, 17AN

Bestalde, Eskoriatzako ikastetxeetatik soberan geratzen diren sarrerak azaroaren 17an, eguztena, jarriko dituzte salgai kiroldegian, goizeko lehen ordutik, 08:00etatik aurrera, eta bost eurotan salduko dituzte. Izan ere, Udalak jakinarazi du kiroldegiak zehaztuta duen edukiera dela-eta –1.450 lagunendako tokia dago– ezingo dela inor sartu sarrerarik gabe, adina edozein dela ere. Segurtasun arazorik ez egotea bermatu gura du antolakuntzak.

ESTREINALDIA, ESKORIATZAN

Ikuskizun berria Eskoriatzan estreinatuko dute. Lanez lepo dabiltza pailazoak, diskoa ere grabatzen dihardute-eta Andoaingo Garate estudioan hamaika kolaborazioreekin. Diskoak ikuskizunaren izen bera hartuko du: *Ongi etorri, Pupu eta Lore!*.

Pupu eta Lore Pirritxen alaba bikiak dira, eta, jakina, alabak hezi egin behar dituzte, horrek dakartzan arazo eta buruhausteekin. Adibidez, osasun kontuek berebiziko garrantzia dute, eta horretan laguntzeko azalduko da Nagore, euren lagun medikua. 80 minutu iraungo du ikuskizunak.



Irrien lagunak ikuskizunarekin kiroldegia lepo bete zuten iaz Pirritx, Porrotx eta Marimototsek. JOSETXO ARANTZABAL

> LAPURRETAK

Lapurreten gorakada dela-eta, atea giltzaz ixtea gomendatu dute

Udaltzaingoak, Debagoieneko polizien koordinaziorako mahairen bitartez, herritarrei gomendatu die etxeko atea giltzaz ixteko, halako neurri bati esker lapurreten "%90" ekiditen delako.

> HITZALDIA

Hizkuntza lidergoaren gainean jardungo dute azaroaren 17an

Soziolinguistika Klusterrak eta MUk elkarlanean antolatuta, hizkuntza lidergoaren gaineko jardunaldi irekia egingo dute Huhezin azaroaren 17an.

ZER DIOTE ZURE GURASOEK?

ZER DIOTE ZURE SEME-ALABEK?

UDALA > ORDENANTZA FISKALAK

Kiroldegiko tasak igoko dituzte gehien 2011n

Udalbatzak onartu zuen 2011ko zergak %2,3 igotzea; aurreikusten den KPIa, hain zuzen



Zubikoa kiroldegia; tasak %4,3 igoko dituzte. A.E.

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

2011rako ordenantza fiskalak onartu ditu udalbatzak. Ogasun batzordeak proposatuta, zerga ordenantzen irizpide orokorra KPI igotzea izan da; hain justu, %2,3 igotzea.

Igoera onartu zuten EAJ, Hamaikabat eta PSE-EE taldeetako zinegotzien botoekin; Oñati Ezkerretik koalizioak kontra bozkatu zuen eta PPko zinegotzia abstenitu egin zen.

SALBUESPENAK IZANGO DIRA

Ogasun batzordearen proposamena batzorde guztietan aztertu ostean, hainbat salbuespen egitea erabaki dute: jarduera ekonomikoen zerga, obren zerga, ludoteka eta udalekuak ez dituzte igoko; landa lurren zerga %0,5 igoko da; zabor tasa %1,99 igoko da, Mankomunitatearen proposamenari eutsiz; kiroldegiko tasak %4,3 igoko dituzte. Gainontzeko zergak baino bi puntu gehiago igoko da kiroldegiko tasa. Diruzainak adierazi zuen hori horrela dela zerbitzuaren defizita ez igotzeko.

Esan beharra dago obren zergak ez dituztela igoko, baina eraikuntza motaren arabera gutxieneko batzuk jarriko dituztela (sukaldea, komunak, leihoak...).

OÑATI EZKERRETIK, KONTRA

Oñati Ezkerretik koalizioak azaldu zuen egoera ekonomikoa kontuan hartuta "zergak dauden moduan" utzi beharko liratekeela. Gaineratu zuten langile gehienek ez dutela KPIk markatutako soldata igoerarik izango. PPkoak ere gauza bera eskatu zuen.

> KIROLA

Kirol jardueretan izan beharreko jarreraz berba egingo dute gaur kultura etxeko aretoan

Aloña Mendiko futbol sailak antolatu du hitzaldia. Jokalariei, haien gurasoei eta entrenatzaileei zuzenduta dago. Gaur izango da hitzaldia, kultura etxeko aretoan, 19:15ean. Hitzaldiaren gaia hau izango da: *Kirol ekintza baten izan beharreko portaera*. Epaileen Batzorde Teknikoaren ordezkari batek eta epaile lanetan dabiltzanek parte hartuko dute hitzaldian: Jose Luis Colinak, Epaileen Batzorde Teknikoaren ordezkariak eta Asier Matellanes eta Josu Cambeses epaileek.

> KULTURA

'Muga. Kultura arteko nahasketa' argazki erakusketa domekara arte egongo da ikusgai

Muga. Kultura arteko nahasketa erakusketa ikusteko azkeneko egunak izango dira gaur, bihar eta etzi. Ilunpetan argazki taldeak antolatutako erakusketa, etzi arte, domeka, egongo da zabalik. Kultura etxeko erakusketa gelan dago ikusgai, eta arratsaldetan zabalduko dute, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Migrazioak, integrazio-politikak eta aniztasuna gaiak landu dituzte argazki bidez Fidel Raso eta Koro Cantabrana argazkilariek. Testuak Tamara Cresporenak dira.

> GERTAKARIA

Urte askoan Gaztelekuko dinamizatzaile izandako Patxi Hipolito ezaguna hil egin da

Herrian ezaguna zen Patxi Hipolito, urte askoan Gaztelekuko dinamizatzaile izan zelako, besteak beste. Eguaztenean hil egin zen gaixotasun larri baten ondorioz. 44 urte zituen Hipolitok eta jaiotzez donostiarra zen.

Kulturaren alde lan asko egindakoa zen Hipolito; adibidez, orain dela 14 urte Oñatin sortu zen Potxo argitaletxeko bultzatzaile nagusia zen. Argazkilaritza eta musika ere oso gustuko zituen.



ZELAIA ONATI
www.zelaia.net

40 urte elkarrekin
1970-2010

SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

* 1.000 eurotik gorako erosketa bakoitzarekin hiru zenbakidun txartel bat eskuratuko duzu. Horietako baten azken hiru zenbakiek "El niño" zozketako saritutakoarekin bat badatoz, 2010ean egindako zure erosketa debalde lortuko duzu!

UDALA > ORDENANTZA FISKALAK

2011ko udal zergak %4,5 igotzea onartu du udalbatzak

Udal Gobernuko eta PSE-EEko zinegotziaren aldeko botoekin onartu zuten hasierako onespena; EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

2011ko ordenantza fiskalak izan zituzten mahai gainean eguazteneko osoko bilkuran. Ogasun eta Pertsonal batzordeak datorren urteko zergak %4,5 igotzea proposatu zuen, eta udalbatzak hasierako onespena eman zion proposamenari, aldeko zortzi botorekin eta hiru abstentziorekin.

Ogasun eta Pertsonal batzordeak zerga bakoitzari ezartzen zaion tipo eta koefizienteak aztertu ondoren erabaki du igoera %4,5 izatea. Urte amaieran Estatuko KPI %2,1 izango dela aurreikusten den arren, Udalak eskatuta daukan maileguari aurre egin ahal izateko hartu du %4,5 igotzeko erabakia: "Udalak eskatuta daukan maileguari aurre egin ahal izateko plan ekonomiko finantzario bat egin zuen; horren arabera, 2010, 2011 eta 2012. urteetako KPIren igoera %4,5 izango zela aurreikusi zen".

HORRELA GERATUKO DIRA ZERGAK

Ondasun higiezinen gaineko zerga, ekonomia jardueren gaineko zerga, trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga eta hiri lurren balioen gehikuntzaren gaineko zerga %4,5 igotzea proposatzen da; eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga 2010ekoa mantentzea proposatzen da.

Tasei dagokienez, zabor tasa Mankomunitateak proposatutako igotzea adostu dute, %1,99; agiriak egiteagatik ordaindu beharreko tasa bere horretan mantentzea proposatu dute; hilerriko zerbitzuaren tasa %2,1 igotzea proposatu dute; establezimenduak zabaltzeko baimena bere horretan mantentzea proposatu dute; ibilgailuen lizentzia %2,1 igotzea proposatu dute; hiriginta baimenak %2,1 igotzea proposatu dute; lurzoru publikoa mahai eta aulkiekin okupatzea 2010eko bera mantentzea proposatu dute; eta Udal Pilotalekua erabiltzearren eta Eztala erabiltzearren 2010eko tasa mantentzea proposatu dute.

EAJ ABSTENITU EGIN ZEN

Basili Ormazabalek esan zuen "%4,5 igotzea larregi" dela, kontuan hartuta KPI %2,1 inguru izango dela. Alkateak esan zion zaila dela herritarrei azaltzea; igoera hori planteatzea ez dela "samurra", baina ezta egoera ere.



JABI ETXANIZ

25 laguneko taldea joan zen Gorbeiara

Arrola mendi taldeak antolatuta, 25 laguneko koadrila joan zen Gorbeiara domekan. Murua aldetik abiatu ziren; gainera, tontorrera iristear zirela Juanito Oiartzabal mendizalearekin topo egin zuten. Gurutzera iritsi ondoren, Bizkai aldera jaitsi ziren eta Lekandako aterpetxera iristear zirela euriak harrapatu zituen. Mendi taldekoak pozik daude irteerak izan duen erantzunarekin; esan dute norbaitek irteeraren bat proposatu gura badu eurekin harremanetan jartzeko.



Goio Arrietak Aretxabaletako Arkupen egindako ikuskizuna. ARKUPE

KULTURA > MUSIKA ETA ANTZERKIA

'Harri irratixe' ikuskizuna Torresoroan gaur, 22:00etan

Goio Arrieta eskoriatzarrak musikari famatuak imitatutako ditu

A.E. > ANTZUOLA

Musikan oinarritutako antzezlana izango da *Harri irratixe*. Goio Arrieta musikariak eskainiko du ikuskizuna, egubakoitzean, 22:00etan, Torresoroan. Arrietaren eskutik, Andres Calamaro, Fito, Manu Caho eta Alex Sardui, besteak beste, izango dira taula gainean. Pertsonaia eta talde horien musika entzuteko aukera egongo da.

BAKARRIZKETAK

Arrieta oso musikazalea da; hala, musikan oinarritutako bakarrizketak egingo ditu. Batez ere, azkeneko hamarkadako musika erabiliko du, bere bizitzan erreferente izan direnak.

Arrietak pertsonaia aldatu behar duenean, hau da, *atrezzoa* aldatzean, bideoklipak jarriko dituzte aretoan bertan dauden ikusleak girotzeko.

> KIROLA

Mondraren aurka jokatuko dute bihar antzuolarrek

Denboraldi hasierako helburuak atzean utzi eta sailkapeneko goiko postuei begira jartzeko moduan daude Antzuolako mutilak. Izan ere, Juanina Garaik zuzentzen duen taldeak denboraldi hasiera bikaina egin du. Aurreikuspen guztiak apurtuz, sailkapeneko hirugarren postuan jarri dira antzuolarrak. Jokatutako zortzi partiduetatik bost irabazi dituzte, bi berdindu eta bakarra galdu dute.

Bihar, zapatua, Mondraren aurkako derbia izango dute, Mojategin, 18:00etan.

> KUDEATUZ

Herritar guztiak daude gonbidatuta azaroaren 9ko batzarrera

Kudeatuz programaren bitartez egiten dabiltzan parte-hartze prozesuko batzarretan herritar guztiek parte har dezakete. Parte hartu ezin duten bakarrak politikariak dira. Hala, datorren martitzenean Olaran etxean egingo den batzarrera joateko animatu gura dituzte herritarrak (19:00etan).

Batzar horretan antzuolarrek dituzten balio eta ezaugarrien inguruan jardungo dute berbetan. Martitzeneko batzarraz gain, beste bi ere egingo dira: azaroaren 23an eta 30ean izango dira horiek.

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Arin Jatetxea
Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak
ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.
Astelehenetan eta martitzenetan itxita
Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA



Mariano Estornes Lasaren Azkoaga auzoko irudi zahar bat. EUSKOMEDIA

UDALA > KULTURA

Argazki artxiboa osatzeko beka deitu du Aramaioko Udalak

1950. urtea baino lehenagoko herriko argazkiak batzea eta katalogatzea da helburua

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Aramaioko argazkien bilketa izenburuko beka deitu du Udalak. Herritarren artean lana sustatuz, Aramaioko argazkiak biltzea, aukeratzea, katalogatzea eta digitalizatzea da helburua. Aipatutako argazkiekin argazki artxibo digital bat sortuko da etorkizunean. Jasoko diren argazkiek 1950. urtea baino lehenagokoak izan beharko dute. Hala ere, interes berezia izan dezaketen handik aurrerako argazkiak ere artxiboan sartuko dira. Hasiera baten Aramaioko udaletxetik egingo da bilketa lana eta bertako teknikarien esanetara egongo da bekaduna.

LAU HILABETEKO LANA

Proiektu irabazlea aukeratzen den unetik aurrera, lau hilabeteko epea izango du bekak. Edozein modutan ere, hasieran aurreikusitako epea luzatzeko aukera egongo da, betiere Udalak horrela erabakitzen badu.

Bekaren zenbatekoa 2.500 euro izango da eta, gehienez ere, bidaia gastuendako 100 euroko diru kopurua izango da. Kopuru hori gaindituko lukeen edozein gastu Aramaioko Udalari proposatu beharko zaio, Udalak azter dezan. Udalak eskaner bat lagako dio bekadunari. Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 19ra dago zabalik. Interesatuek *www.aramaio.org* webgunera jo dezakete argibide gehiagoren eske. Era berean, *udala@aramaio.org* helbidean deialdiarekin zerikusia duten kontsultak egiteko aukera dago.

KUTXAESPAZIORA HILAREN 21EAN

Azaroaren 21erako Donostiako Kutxaespaziora joateko irteera antolatu du Zuiako Koadrilak. Aramaioko kiroldegitik irtengo dira, 09:15ean. Gaur, barikua, da izena emateko azken eguna. Argibideak 945 43 01 67 telefono zenbakian.

ZER DIOTE IKASLE ABERTZALEEK?

ZER DIO BEART ARTE ELKARTEAK?

> UDALBATZA

Joxe Goronaeta EAko zinegotzi berria hasi da udaletxean lanean

Joxe Goronaeta EAko zinegotzia hasi da udaletxean lanean. Hura dugu abuztuan hil zen Andres Osinaga zenaren ordezkoa. Aurrerantzean Goronaeta izango da EAko ordezkaria; aurretik ere zinegotzi jardundakoa da.



Joxe Goronaeta.

> HIRIGINTZA

Plan Orokorraren gaineko kontsultak egiteko aukera dago martitzenero udaletxean

Plan Orokorraren gaineko alegazioak abenduaren 13ra arte aurkeztu ahal izango dira udaletxean. Bien bitartean, jendaurrean dago ikusgai Plan Orokorra, osoko bilkuren aretoan, astelehenetik eguenera 09:00etatik 17:30era eta barikuetan 09:00etatik 15:30era. Dokumentua *www.aramaio.org* webgunean ere eskuragarri dago. Herritarrek aukera dizango dute martitzenero, goizez, kontsultak egiteko. Aurrez baina txanda eskatu beharra dago udaletxean, 945 44 50 16 telefono zenbakian.

> MENDIA

Himalaiari buruzko bideo emanaldia eguazten arratsaldean Sastiñan, Orixolen eskutik

Orixol mendi elkarteak antolatuta,Himalaiari buruzko bideo emanaldia izango da eguaztenean, hilaren 10ean, Sastiñan, 19:00etan. Zornotzako Asier Arantzabal eta Mila Gallastegiren *Himalaia ezezaguna: Kaxmir eta Ladakh* ikusteko aukera izango da. Sarrera doanekoa izango da.



Himalaiako irudi bat.

> KULTURA

Iker Agirre hilaren 12an lehiatuko da Bertxokon; saioaren aurretik afaria izango da Laudion

Arabako Bertsozale Elkarteak eta Hala Bedi Irratiak antolatutako Bertxoko lehiaketan hartuko du parte Iker Agirrek. Azaroaren 12an Laudion jokatuko den saioan lehiatuko da Agirre. Saio guztiak afalostean hasiko dira. Azaroaren 12ko saioa Laudioko Basalarrina elkartean izango da eta afarirako izenematea 675 70 79 71 telefonoan egin daiteke.

> ZUIAKO KOADRILA

Orri markagailu lehiaketaren bosgarren ekitaldia: lanak azaroaren 19ra arte jasoko dituzte

Zuiako Koadrilak orri markagailu lehiaketa deitu du. Adinaren arabera lau maila egingo dituzte: 2-10 urte; 11-14 urte, 15-17 eta, azkenik, 18 urtetik gorakoak. Kategoria bakoitzeko hiru sari banatuko dituzte: 150 euro irabazleari, 100 euro bigarrenari eta, azkenik, hirugarren saria, 60 eurokoa. Lanak aurkezteko epea azaroaren 19ra arte izango da zabalik. Argibideak: 945 43 01 67.

KULTURA > ZINEMA

Zinema emanaldia gaur eta erakusketa Sastiñan

E.M. > ARAMAIO

La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina filma eskainiko dute gaur, barikua, Aramaioko kultura etxean, 22:15ean. Stieg Larsson idazle suediarraren *Millennium* trilogia ospetsuan oinarritutako filma da; hain zuzen ere, trilogiaren bigarren zatia da gaur eskainiko dutena. Aurreko astean lehenbiziko zatia eman zuten, *Los hombres que no amaban a las mujeres*. Ohi denez, gaurko emanaldirako sarrera euro baten truke eskuratu ahal izango da.

DISPERTSIOA, SASTIÑAN

Bestalde, dispertsioaren gaineko erakusketa ikusgai dago egunotan Sastiñan. Euskal presoen dispertsioaren eraginez ehunka senidek eta lagunek egin behar izan dituzten bidaien inguruko gorabeherak jasotzen ditu erakusketak. Astelehenera arte, azaroaren 8ra arte, izango da zabalik aipatutako erakusketa.

ELGETA > TURISMOA

Domekan, Espainiako gerrako frontera bisita

Aurrerantzean hilean bi egingo dituzte; bisita gidaria ere aukeratu dute

LARRAITZ ZEBERIO. > ELGETA

Domekan, hilak 7, egingo dute azaroko lehenengo bisita gidatua Intxortako ibilbide tematikora. Euskaraz egingo da bisita hori eta interesatua egonez gero gaur, barikua, da izena emateko azken eguna.

Mankomunitateko Turismo Sailak antolatzen ditu bisitok eta talde bakoitzeko gehienez 30 lagun onartuko dituztela jakinarazi dute. Horregatik, ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea. Mankomunitateak hiru bide zabaldu ditu horretarako: *turismo@debagoiena.net,* 943 796 463 edo 943 718 911.

BISITA GIDARIA, ARRASATEARRA

Intxortako ibilbide tematikoak piztu duen interesa ikusirik, Mankomunitateak bisitei maiztasun finkoa ematea erabaki du eta bisita gidari bat ere izendatu dute. Saioa Rozas arrasatearrak egingo du lan hori hilean bitan: lehenengo eta azken domeketan, hain zuzen ere. Hurrengo bisita azaroaren 28an egingo dute, gazteleraz.

IKUSTEKOAK

Interpretazio-gunea eta ibilbide tematikoa

Bisitok 10:00etan abiatuko dira Espaloia Kafe Antzokiko interpretazio-gunetik. Bertan dagoen materiala ikusi eta azalpenak jaso ostean, bisitariek bost kilometroko ibilbide tematikoa egingo dute oinez. Hiru bat orduko saioak izango dira eta prezioa bi euro da. Interesa edukiz gero, hurrengo bisitak azaroaren 28an (gaztelaniaz), abenduaren 5ean (euskaraz) eta abenduaren 19an (gaztelaniaz) egingo dira.

Gero eta trebeagoak dantzan

Urtarrilean abiarazi zuten *Herrixa dantzan* ekimena. Harrera ona du; izan ere, domekan egindako saioan berriz ere bete egin zen Espaloia. Jainaga eta Narbaitza trikitilarien zuzeneko musikarekin egin zuten. Helduak bakarrik ez, gazteak ere dantzan ikusi genituen.



L.Z.

4 t'erdiko pilota txapelketa

Laugarren jardunaldirako zortzi partidu daude iragarrita

L.Z. > ELGETA

Gaurko, barikua, lau norgehiagoka eta etziko, domeka, beste lau daude iragarrita. Aurreko aste bukaeran luze jo zuten zenbait norgehiagokak eta oso lehiatsuak izan ziren. Poliki-poliki aurrera doa txapelketa eta emaitza onenak lortzen dituztenek lortuko dituzte finaletarako txartelak. Puntuak batzen joateko, hemen beste aukera bat!

HIRUGARREN JARDUNALDIKO EMAITZAK

1. J. Bolinaga-I. Izagirre / A. Ibarluzea-A. Telleria	**10-22**
2. K. Goenaga-A. Arantzabal / P. Larrea-M. Elkoro	**20-22**
3. D. Peñalver-S. Bouzas / H. Gallastegi-K. Odriozola	**22-12**
4. Morales-F. Zenitagoia / J.M. Zubiaurre-I. Ugarteburu	**22-21**
5. O. Erostarbe-Arizmendiarrieta / Cantabrana-I. Irazabal	**22-16**
6. O. Askasibar-E. Elkoro / D. Cantabrana-I. Irazabal	**22-11**

GAURKO PARTIDUAK (HILAK 5, 20:00ETAN)

1. J. Bolinaga-I. Izagirre / A. Morales-F. Zenitagoia
2. J.M. Zubiaurre-I. Ugarteburu / P. Larrea-M. Elkoro
3. D. Peñalver-S. Bouzas / I. Irazabal-G. Bolinaga
4. J. Irazabal-I. Etxaniz / S. Ramos-E. Salaberria

DOMEKAKO PARTIDUAK (HILAK 7, 10:30EAN)

1. L.A. Alkorta-G. Bolinaga / A. Ibarluzea-A. Telleria
2. O. Erostarbe-G. Arizmendiarrieta / H. Gallastegi-K. Odriozola
3. K. Erostarbe-E. Garate / D. Cantabrana-I. Irazabal
4. J. Irazabal-I. Etxaniz / M. Irazabal- I. Ibaibarriaga



JUAN A. MIGURA

Elgetako karatekak Oñatin izan ziren

Zapatuan Shotokan Oñati XVI. karate txapelketa jokatu zen Zubikoan eta erakustaldia egin zuen herriko karateka talde batek. Oñatiko, Bergarako, Antzuolako eta Elgetako 120 parte-hartzaile elkartu ziren. Irudian, elgetarrak, lortutako garaikurrekin, pozik.

> OSASUNA

Azaroaren 27ra arte luzatu dute osasun etxean gripearen aurkako txertatze kanpaina

Osakidetzak erabaki du irailaren 20an abiarazi zuen txertatze kanpaina luzatzea. Deialdia, bereziki, 65 urtetik gorakoei, diabetikoei eta gaixo kronikoei zuzenduta dago. Orain arte moduan, interesatuek txanda hartu behar dute aldez aurretik.

> ISUNAK

Gaizki aparkatzeagatik 80 eta 200 euro bitarteko isunak ipiniko ditu Ertzaintzak

Gaizki aparkatzea arau-hauste arina da eta 100 eurora arteko isuna ekar dezake, Zirkulazio Legearen 67. artikuluaren arabera. "80 euroko isunak ipintzen ditugu", esan dute Ertzaintzatik. "Baina autoak oztopo handia sortuz gero, 200 eurora irits daiteke".

> ZERBITZUAK

Datorren bi astelehenetarako arreta ordutegi aldaketa iragarri dute Suradesatik

Suradesaren zeregina Debagoieneko etxebizitza ondarea birgaitzea da. Hurrengo bi astelehenetan, azaroaren 8an eta azaroaren 15ean, Suradesako zerbitzuaren ordutegia aldatu egingo da herrian: 13:30etik 14:30era izango da, udaletxean.

> AISIALDIA

Bihar, zapatua, henna tailerra egingo dute gaztelekuan, 18:00etan hasita

Hennarekin tatuajeak nola egin ikasteko aukera emango dute bihar, zapatua, gaztelekuan. Elgetan bizi den marokoar neska batek eskainiko du tailerra. Gaztelekuko erabiltzaileendako doan izango da eta gainerakoendako prezioa hiru euro da.

LEINTZ GATZAGA > PILOTALEKUA

Lanak ez dituzte bukatu

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Pilotalekuko berritze lanak aurrera doaz, baina oraindik ez dituzte bukatu, ezta bukatuko ere San Milixan feriarako. Udalaren asmoa zen azaroaren 14rako lanik garrantzitsuenak eginda egotea feria pilotaleku berrituan egiteko, baina ezin izango da. Hala ere, ingurua txukun utziko dute eta artisau feria, urtero legez, pilotalekuan egingo dute.

Eskoriatzako Razkin enpresako langileek pilotalekuaren estalkia kenduta daukate, baina oraindik ez dira hasi berria jartzen. Azaro guztia, behintzat, beharko dute lan horiek egiteko; hau da, estalki berria jarri eta goiko partea ixteko.

Pilotalekuko lanek ez dute artisau kopurua murriztuko eta, urtero legez, 15 izango dira. Horrekin batera, larrua lantzeko tailerra egongo da Pilar kaleko lokalean eta euskal oihalen erakusketa Garro jauregian.

> EMAKUMEAK

Soran etxean elkartuko dira etzi 'sorginak' bazkaltzeko

Sorginak Emakume Elkarteak deituta bazkaltzera joango dira etzi, domeka, herriko emakumeak, Soran hoteleko jatetxera. 22 lagunendako hartu dute tokia, eta, betiko moduan, umore ona lagun, bazkalordu atsegina pasatu eta kontu kontari jarduteko asmoa daukate.

> INTERNET

Dinamizatzailea izango da KZgunean astelehenean

Aitor Madrid dinamizatzailea etorriko da astelehen arratsaldean, hilak 8, KZgunera (16:00-20:00). 16 urtetik gora dituztenendako hainbat ikastaro iragarri ditu, guztiak errazak eta motzak (2 ordu): sare sozial ezagunenak; blogak eta bilaketa tresnak; *Google*-ek dituen tresnak…

> GOLFA

Mikel Galdos golf jokalari profesionalak Euskadiko txapelketa irabazi du, Zuian hirugarren sailkatuta

Aretxabaletako golf jokalari profesionalak Euskadiko txapelketa irabazi du, martitzenean amaitu zuten Zuiako txapelketan hirugarren amaituta.

Lehenengo jardunaldia nahi baino gehiago trabatu zitzaion Aretxabaletakoari: "Hirugarren zuloko bunkerrak kalte handia egin zidan, baina gaur zelaiaren paretik golpe bat behera amaitu dut, eta zelaiko marka ontzea beti dago ondo", adierazi zuen martitzenean, txapelketa amaitu berri: "Goiburun Gipuzkoakoa irabazi nuen, eta orain erakutsi dut txapelketa guztian erregularrena izan naizela; ez dago txarto".



Mikel Galdos, txapelketan. GOROSPE

> PIRAGUISMOA

Patxi Ugaldek lehenengo postua lortu du Orthezen egindako ur azkarretako Euskadiko txapelketan

Euskadiko ur azkarretako txapelketa uztailean egin behar zuten, Bidasoan, baina proba atzeratzea erabaki zuten, ur gutxi zegoeneta. Bada, Bergarako piraguistek asteburuan erakutsi dute gorputzaldi onean iritsi direla. Beti-Bustik bost ordezkari izan zituen, eta, guztien artean, azpimarratzekoa da Patxi Ugaldek egindako lana –Holandan egin berri duten Dutch Open 2010 proban hamaikagarren izan da–, kadete mailan urrezko domina eskuratu zuen-eta.

Beñat Lizarralde laugarren eta Aritz Gimbert zortzigarren izan ziren kategoria berean. Gainontzeko ordezkariak ere ondo ibili ziren: Jokin Labaien eta Iñaki Usabiaga irekiera kategorian bosgarren sailkatu ziren.

> ATLETISMOA

Arrasateko epaile Ormaetxeak eta Petreñasek Urrezko Ezkurra jasoko dute 25 urteko lanagatik

Gipuzkoako Atletismo Federazioak denboraldi amaierako gala egingo du gaur, egubakoitza, Donostiako Amara hotelean. Eta saria jasoko dutenen artean hainbat debagoiendar daude, bai kirolariak, eta baita epaileak ere.

Izan ere, 25 urtean atletismoko epaile moduan egin duten lanagatik saria jasoko dute Jose Ramon Petreñas eta Jon Ormaetxea arrasatearrek: Urrezko Ezkurra. Petreñas nazional mailako epailea da, eta Ormaetxea maila probintzialekoa. Haiekin batera, Brontzezko Ezkurra jasoko dute pertika saltoan aurtengo denboraldian egindako errekorrengatik Maialen Axpe arrasatearrak (3,70) eta Malen Ruiz de Azua aretxabaletarrak (3,50).

> ESKALADA

Ander Lasagabaster arrasatearrak 'Honky Mix' 8c+ zailtasuneko bidea kateatu du Araotzen

Arrasateko eskalatzaileak hilabete behar izan du Araotzen dagoen zailtasun goreneko (8c+) bidea kateatzeko –Euskal Herriko gogorrenetakoa–, eta, ondo aurreikusi moduan, gogorra izan bada ere Arrasatekoak pozik amaitu du, helburua lortuta.

Teknikoki duen zailtasunaz gain –*Honky Mix* lehenagotik zeuden bi bideren batuketa da, *Magic eye* eta *Honky Tonky*, eta biak batuta lortzen du 8c+ zailtasuna]–, kontuan hartu behar da Araotzen eguraldiak erabat baldintzatzen duela eskalada jarduera, eta hor egon da *Honky Mix* egin ahal izateko beste zailtasun bat. Iker Pou eta Patxi Usobiaga eskalatzaileek, adibidez, begiz jota izan dute bidea. Bestalde, hor lortu zuen emakumezko batek, lehenengoz, 8c+ zailtasuneko bidea egitea; Josune Bereziartuk, hain zuzen.

ATLETISMOA > ANTXINTXIKA KROSA

Soraluzetik Bergarara azkarrena nor den, bihar

17:00etan hasiko dute krosa; gurpildun aulkian doazenak bost minutu lehenago irtengo dira

Antolatzaileek esan dute jende asko espero dutela, eta izena emateko garaiz ibil daitezela eskatu dute

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Bihar, zapatua, egingo dute Antxintxika kroseko 6. edizioa, Olatz Rementeria memoriala. Lasterketa 17:00etan hasiko dute, eta aurtengo berritasunetako bat da gurpildun aulkian dabiltzan atletak ere lehian izango direla; horiek bost minutu lehenago irtengo dira: "Dagoeneko konfirmatu digute sei lagun izango direla lasterketan, baina baliteke azken aste honetan jende gehiago animatzea", adierazi du Antxintxikako ordezkari Aitor Rementeriak.

GARAIZ IBILTZEKO ESKAERA

Bihar, krosa hasi aurretik antolatzaileak zoratu behar batean ez ibiltzeko, Antxintxikako lagunek eskatu dute izena egunean bertan emango duten korrikalariok garaiz ibil daitezela: "Joan den asterako 150 lagun zeuden Internetez apuntatuta, eta, jende asko azken astean animatzen denez, aurreikusten dugu atleta asko izango direla Antxintxika krosean parte hartzeko gertu. Egunean bertan beste 150 lagunek eman ohi dute izena; horrenbestez, garaiz ibil daitezela eskatu nahi diegu, azken momentuan lanak ez pilatzeko. Antolatzaileok 15:00etarako egongo gara izenak hartzen, Soraluzeko ikastola parean", adierazi du Rementeriak.

Izan ere, aurtengo Antxintxika krosaren (10 kilometro) irtera ikastola parean egingo dute, eta ez, azken ediziotan egin duten moduan, Herriko Plazan: "Herriko Plazan baino leku zabalagoa dagoelako ikastola parean, lasterkariek elkarri trabarik ez egiteko, eta plazatik irtenez gero hasierako metroetan dauden maldak ekiditeko".



Iazko kroseko talde-burua, Soraluce enpresaren pare

ESANAK

"Izena eman nahi duten lasterkariok garaiz ibil daitezela; ikastola parean egongo gara izenak hartzen"

Aitor Rementeria > Antxintxika

SASKIBALOIA > NAZIONAL MAILA

MU eta Sustrai Aloña Mendi: puntako saskibaloia aukeran bihar, ordu berean

Igartuaren mutilek Legarziaren kontra jokatuko dute eta Larreategiren taldeak Sekyren kontra

X.U. > ARRASATE

Pena da, baina Debagoienean puntako saskibaloia ikusteko aukeratu egin behar da, Arrasate edo Oñati, egun eta ordu berean jokatuko dute-eta. Eta seguruenik bi taldeetako saskibaloizale amorratuei egiten die grazia txikien, ezin dute-eta ondoko taldea gertutik jarraitu –komeni zaie, gainera, datorren astean derbia dute-eta.

Sustrai Aloña Mendik denboraldi hasiera ikusgarria egin ostean –lau garaipen jarraian– galdu egin zuen joan den astean Seky.es taldearen kantxan (85-80). Zapatuan (18:00), azkenaurreko postuan dagoen Promociones Legarzia taldea izango da Zubikoan.



Kintana, saskira jaurtiketa egiten. GOIENKARIA

Mondragon Unibertsitatea zazpigarren lekuan dago, jokatutako bost partiduetatik bi garaipen batuta. Joan den astean galdu egin zuten Gasteizen (68-64), baina sentsazio onak batuta itzuli ziren etxera. Bihar, bigarren postuan dagoen Seky.es taldea izango da Iturripen.



an. Bihar Osintxun zubia pasa eta errepidera irtengo dira lasterkariak; ondoren, enpresa horren parean itzuliko dira bidegorrira. GOIENKARIA

GAZTEENDAKO LASTERKETAK

Nagusiek 10.000 metroko lasterketari egingo diote aurre, baina gaztetxoendako lasterketak ere antolatuko dituzte, Bergaran bertan, Ibargarai kalean: "16:00etan hasiko ditugu gazteendako probak. Helmugatik Ibargaraiko palmeraraino egingo dugu zirkuitua, itzuli batek 400 metro ditu, eta adinaren arabera gazteendako 400, 800 eta 1.200 metroko lasterketak antolatuko ditugu". Hala, gaztetxoek ikastetxeetan izan dute lasterketarako izena emateko aukera, baina bihar bertan ere izango dute izena emateko modua.

OPARIAK ETA ERRETRATUAK

Azken urteotan sariak dirutan ez emateko erabakia hartu du Antxintxika Triatloi Taldeak: "Bestela, izaera herrikoia galtzen du probak; uste dugu jendeak gehiago baloratzen duela herriko jendea aurrean ikustea; izan ere, puntako lasterkari afrikarrak ikusteko beste lasterketa asko daude. Gainera, helmugan, proban ateratako erretratuak erakutsiko ditugu".

ELKORORREN HUTSUNEA

Etxean badago ere, Jose Luis Elkorok ezingo du lasterketa bertatik bertara jarraitu: "Horixe adierazi nahi dugu antolatzaileok, aurten korrikalari baten hutsunea igarriko dugula, Jose Luis Elkororena; izan ere, horrelako lasterketetan parte-hartzea izugarri gustatzen zaio Elkorori".



Aretxabaletako aurrelari Oinatz, kontrario artean. GOIENKARIA

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Behin bakarrik barkatu duen Hernani, Aretxabaletan

X.U. > ARRASATE

Orain arteko zortzi jardunaldietan Hernanik erakutsi du oso indartsu dagoela, nahiz eta partidu baten baino gehiagotan ez duten apartekorik erakutsi; besteak beste, Bergarak ondo estutu zuen liderra, baina Hernanik azken minutuetan sartu zuen garaipenaren gola (0-1)

Aurrean bikain dabilen taldea izan barik, atzean sekulako sendotasuna du Hernanik (4 gol jaso dituzte), eta sendotasun hori apurtzen ahaleginduko dira domekan Aretxabaletako mutilak (16:30). Barrutiaren mutilak sailkapenaren erdian dira, aurrerapausoa egiteko desiratzen.

BERGARAK ZUBI-LANA

Bergarak zubi-lana egin nahi du atzealdean eta erdialdean daudenen artean. Tarte hori handi ez dadin hiru puntuak behar ditu Bergarak, denboraldian atzealdean sartuta ibiliko direnen multzoan ez sartzeko (bihar, 16:30)

Eta egoera berean dago Aloña Mendi, aspaldiko beherakada nabarmenenean murgilduta; biharko kontrario Trintxerpe ez dabil bikain, eta hautagai ona izan daiteke mahai gainean kolpea emateko.

Azkenik, kanpora begira itxura ona eskaintzen ari den Mondrak Rotetaren zelaian jokatuko du. Itxura ona kanpora begira, diogu, barruan arazo handiak dituz-eta, jokalari gabezia galanta. Bigarren taldeko jokalariak hartzera behartuta dago entrenatzailea, baita gazteak ere. Eta talde horietan ere arazo bera dute.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehen maila
Reala-Racing
Zapatua. 20:00. Anoeta.

Gazteen liga nazionala
Ariznabarra-Aretxabaleta
Domeka. 11:45. Gasteiz.

Gazteen euskal liga
Santutxu-Bergara
Zapatua. 12:45. Mallona.

Ohorezko erregional maila
Trintxerpe-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Don Bosco.
Roteta-Mondra
Zapatua. 17:30. Herrera.
Bergara-Ondarroako Aurrera
Zapatua. 15:45. Agorrosin.
Aretxabaleta-Hernani
Domeka. 16:30. Ibarra.

Erregional preferentea
Intxurre-Aretxabaleta B
Zapatua. 15:30. Elorri.
Mondra-Antzuola
Zapatua. 18:00. Mojategi.

Lehen erregionala
Bergara B-Gazteak
Zapatua. 17:45. Ipintza.
Urki-Aretxabaleta C
Zapatua. 15:30. Unbe.

Ohorezko gazteak
Aloña Mendi-Lagun Onak
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Elgoibar-Mondra
Zapatua. 18:15. Mintxeta.

Lehen mailako gazteak
Urki-Bergara B
Zapatua. 17:30. Unbe.
Aretxabaleta (atsedena).
Arizmendi-Arizmendi UDA B
Zapatua. 12:00. Almen.

Kadeteen ohorezko maila
Lagun Onak-Bergara
Zapatua. 10:45. Garmendipe.
Tolosa-Aretx.Arizmendi
Zapatua. 17:30. Usabal.

Emakumezkoen liga
Arizmendi (deskantsua).
Mondra-Amaikak Bat
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Emakumezkoak, gazteak
Euskalduna-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Andoain.
Ordizia-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Altamira.
Ilintxa-Bergara
Zapatua. 18:00. Bikuña.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Mallabia-Eskoriatza
Domeka. 17:30. Zaldibar.

Bigarren maila
Aretxabaleta-Urritza jat.
Gaur. 20:45. Almen.

Hirugarren maila
Aloña Mendi-IDK Elektronika
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Gazteak
Internacional-Aloña Mendi
Domeka. 12:30. Donostia.

SASKIBALOIA

Lehenengo nazional maila
Sustrai Aloña Men.-Legarzia
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
MU-Seky.es
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Senior gizonezkoak
MU-Autorecambios Goierri
Zapatua. 16:00. Musakola.

Seniorrak, bigarren maila
Sustrai Aloña-Ruibal
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Soraluce BKE-Alde zaharra
Domeka. 17:00. Labegaraiet.

Senior emakumezkoak
Alde zaharra-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

Gazte gizon, partaidetza
MU B-Kraft Atco
Domeka. 11:45. Musakola.
Aloña Mendi-MCM
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

ESKUBALOIA

Euskadiko Txapelketa, giz
Ford Mugarri-Urola
Zapatua. 19:45. Iturripe
Basauri-Soraluce BKE
Zapatua. 16:30. Basauri.

Euskadiko pref. emakume.
Aloña Mendi-Ereintza
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Gipuzkoako lehen maila
Ordizia-Arrasate
Zapatua. 17:30. Ordizia.

Gipuzkoako big. maila
Izarraitz Aloña-Talleres Ondo
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Gazteak, gizonezkoak
Bergara-Ordizia
Zapatua. 12:30. Labegaraiet.
Aloña Mendi-Leizaran
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Gazteak, emakumezkoak
Arrate-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Ipurua.

Kadeteak, gizonezkoak
Arrate-Talleres Chapime
Zapatua. 17:00. Eibar.
Soraluce BKE-Hondarribia
Domeka. 10:00. Labegarai.
Berezao Aloña-Elgoibar
Domeka. 10:30. Zubikoa.

Kadeteak, emakumezk.
Aiala B -Aloña Mendi
Zapatua. 11:30. Zarautz.
Aloña Mendi B-IMH Elgoibar
Domeka. 10:30. Zubikoa.

ERRUGBIA

Senior emakumezkoak.
Arrasate/Durango-Eibar
Zapatua. 17:00. Mojategi.

Gazteak
Baztan-Arrasate/Durango
Zapatua. 12:30. Baztan.

ATLETISMOA

Antxintxika krosa.
Zapatua. 17:00. Soraluze.
*Gazteendako lasterketak egingo dituzte 16:00etan hasita.

XAKEA

Arrasate Hiria txapelketa.
Egubakoitza. 19:00etan Altamiran.

ZER DIO ARRASATEKO ERRUGBI TALDEAK?

ZER DIOTE ARAMAIOKO SAGARDOGILEEK?

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.



> DANBAKA
El Trio Calavera, Rock privado, Front Malabar eta Ymotek gaur **> 24**



> ESPERIMENTUA
'Hilotz atsegina' egiten dabiltza Bergarako pintore batzuk **> 25**

> AINTZANE BERGARA
Oreretarra da, baina Oñatin egiten du lan, biolina erakusten, hain zuzen ere. Futbola eta zinema ditu gustuko **> 26**



AEBetako mendebaldeko literatura ekarriko dute gurera

HUZEZI
Literatura Astea egingo dute azaroaren 11n Eskoriatzan

KONTZERTUAK
Arratsaldean Amuma Says No eta Audience taldeen kontzertua

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

AEBetako mendebaldean sortutako literatura ezagutzeko aukera egongo da Huhezik antolatutako Literatura Astean. XIX. mende erdialdetik 1960ra euskaldun asko joan zen Ameriketara; eta han euskal kultura berezi bat sortu zen. "Kultura berezi bat, ahots berezi bat sortu zen: Basque-American. Ahots horiek gurera ekarri nahi ditugu, euskal herritar moduan gure buruaz dugun ikuspegia osatzeko", azaldu dute Arantza Ozaeta eta Monika Madinabeitiak, Literatura Asteko antolatzaileek.

Uste dute nazioartean Bolognarekin sortu den unibertsitate testuinguru berrian egokia dela Literatura Asteak ere ateak zabaltzea. Jardunaldia azaroaren 11n izango da, Huhezin.

IDAZLEEN EKARPENAK

Renoko Unibertsitatean Euskal Ikasketetako zuzendari izan zen Gloria Totorikaguenak jardungo du lehenengo. Totorikaguena aditua da euskal diasporan; eta, hain zuzen, ahotsa emango dio diasporaren fenomenoari.

Miel Anjel Elustondok "Ipar Ameriketako etnografia moduko zerbait" egingo du, hango ahotsak bildu eta hona ekarrita. Elustondok hainbat artikulu eta liburu idatzi ditu gai horretaz.

12:00etan Frank Bergonen ordua izango da. Bergon idazle euskal-amerikarra da eta idatzi dituen eleberri guztietan "bere euskal identitateak" presentzia handia izan du.

Bernardo Atxaga ere izango da literatura jardunaldian; oraingoan, baina, haren emazte Asun Garikanok idatzitako liburu baten berri emango du. "Garikanok hemendik joandako euskaldun askok bizi izan zituzten bizipenak eta abenturak jaso ditu liburu eder baten", diote antolatzaileek.



Boiseko taldea da Amuma Says No eta euskaraz abesten dute. GOIENKARIA

EGUN BAKARREKO TOPAKETA

Orain arte astebeteko jardunaldiak egin izan dituzte; aurten, baina, egoera ekonomikoak baldintzatuta egun bakarreko jardunaldia izango da. "Garestia da horrelako ekitaldi bat antolatzea, bidaiak eta egonaldiak ordaindu behar dira", azaldu dute Ozaeta eta Madinabeitia antolatzaileek. "Baina uste dugu beste berotasun bat lortu dugula egun bakarreko topaketa antolatuz; eta, akaso, aurtengo esperientziatik zerbait ikasiko dugu eta datorren urtean bide horretatik jarraitu", gaineratu dute antolatzaileek.

Literatura Asteak izango duen beste aldaketa bat data aldaketa izango da: aurrerantzean udazkenean egingo dute: "Gauza asko pilatzen zitzaizkigun Huhezin udaberrian: Komunikaldiak, Huhezinema... Eta pentsatu genuen egutegia orekatzea. Gainera, irakurtzeko saioak guztiak izanik onak, akaso udazkena eta abendua ez dira txarrenak, barne bizitza handiagoa egiten dugun sasoia delako", diote.



Audience talde gernikarra. GOIENKARIA

Azaroaren 11ko egitaraua

09:15 Agurra eta aurkezpena
09:30 Gloria Totorikaguena
Elegir ser vasco: identidades transnacionales en la diáspora
10:30 Miel Angel Elustondo
Basque boulevard: Kaliforniatik Idahora, Nevada eta Oregon barrena
12:00 Frank Bergan
The Adventures of a Basque American Novelist
15:00 Asun Garikano
Urrutiko kontaera hurbilak
16:00 Kontzertua: Amuma Says No
17:00 Kontzertua: Audience

OHARRA: ekitaldiak Huheziko areto nagusian izango dira.

JARDUNALDIEN HELBURUA

Literatura Astearen helburua gizarte jantziagoa sortzea litzateke, gehiago irakurtzen duen gizarte bat sortzea. "Zergatik irakurri? Bada, gure burua janztea hein batean irakurriz ere egiten dugulako. Helburu horrekin, ikasleengana iritsi nahi dugu eta herritarrengana ere bai. Helburu akademikoa baino gehiago, gizartera zabaltzea da gure asmoa", azaldu dute Ozaeta eta Madinabeitiak. Edonork parte har dezake literatura jardunaldian.

Ikasleen parte-hartzea sustatzeko lanak egiten dituzte unibertsitatean. Jardunaldietara joateagatik kreditu libreak jasotzeko aukera dute ikasleek; bestalde, irakasle askok aukera aprobetxatzen dute Literatura Astearekin lotutako lanak bidaltzeko. "Horrela, ikasleak ikasgelatik kanpora ateratzen ditugu eta errealitatera hurbildu, eta artera eta beste komunikatzaile eta komunikazio moduetara", diote.

ARRATSALDEAN, KONTZERTUAK

Jardunaldiak amaitzeko, kontzertuak egingo dituzte Amuma Says No talde estatubatuarrak eta Audience gernikarrek.

Bada, aurtengoa 12. Literatura Astea izango da. Antolatzaileek diote euren "pasioa" dela eta datorren urteko gaia dagoeneko bueltaka darabiltela.

MUSIKA > DANBAKA

Runba, pop-rocka, 70eko hamarkadako rocka eta metal musika gaur Espaloian

Danbakako IV. edizioaren bigarren saioan beste lau talde izango dira gaur Elgetako Espaloian, 22:30ean

MAIALEN GONZALEZ > BERGARA

Aurtengo edizioa ireki zuten taldeen emanaldien ondoren, hurrengo lau parte-hartzaileen txanda heldu da. Oraingoan, El Trio Calavera oñatiarrak, musikari oñatiarrez eta donostiarrez osatutako Rock Privado taldea, Arrasateko Front Malabar eta Abadiñoko Ymotek izango dira protagonistak gaur, Elgetako Espaloia Antzokian, 22:30ean hasita.

Musika estilo ugari izango dira gaur Espaloiko taula gainean: El Trio Calavera taldearen eskutik, runba doinuak entzungai; pop-rock musika Rock Privado taldeak taularatuko du; rockarekin jarraituz, 70eko hamarkadako rock doinuak Front Malabar arrasatearrek eskainiko dituzte; eta Abadiñoko Ymotek taldearen eskutik, berriz, metal doinu gogorrak. Beraz, ingelesezko eta gaztelaniazko abestien bidez, askotariko musika entzungai bertaratu nahi dutenendako.

SARRERAK, 3 ETA 5 EUROTAN

Kontzertuetarako sarrerak Espaloian bertan egongo dira salgai. Gazte Kutxarekin 3 euroren truke eta bestela, 5 eurotan.

KONTZERTUA
Gaur, egubakoitza. 22:30.
Elgetako Espaloia.
5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

> El Trio Calavera
> Rock privado
> Front Malabar
> Ymotek



EL TRIO CALAVERA | Oñati

Joan den apirilean elkartu ziren Luis (Poetas Muertos taldekoa), Ekaitz (Nos la Suda taldekoa) eta Beñat (Ez! taldekoa) gitarra hirukote bat sortzeko asmotan. Euren musika runba euskalduna dela esaten dieten arren, taldekideek *runba merke* moduan izendatu zuten; izan ere, abestien letrak Luisek idatziak dira eta hark ez daki euskaraz. Errealitateko egoerei eta maitasunari buruzko abestiak egiten dituzte, betiere gitarra oinarriak eta gitarra bakarlariak errespetatuz.



FRONT MALABAR | Arrasate

Rock power hirukotea 2009an sortu zen. Hauek dira taldekideak: Borja Sabas bilbotarra (gitarra eta ahotsa), Bachellors eta Porcelanea taldeetako partaide ohia; Josema Cabezas arrasatearra (bateria eta koruak), Malaña, Kumulo eta Carlos el Sucio taldeetako kide ohia; eta Aitor Angulo (baxua eta koruak), Mr. Dange taldeko kide ohia. Egindako kantu guztiak ingelesezkoak dira. Soinu berezia eta gogor samarra izan arren, ez dute melodia ahazten.



ROCK PRIVADO | Oñati-Donostia

German Uribe-Etxebarria (gitarra eta ahotsa), Adriana Besne (ahotsa), Juan Ignacio Manso (gitarra), Iñigo Arotzena (teklatua), Victor Gartzia (baxua) eta Andoni Regueiro (bateria) dira Rock Privado taldeko kideak. Pop-rock musika egiten dute eta bi disko dituzte kalean: *En todo este tiempo* (2008) eta *Caras* (2010). Taldeko abestiak (Germanek konposatutakoak) benetako istorioetan daude oinarrituta, entzuleari melodia gogoraerrazak eta errima sinpleak baino gehiago eskaini nahian.



YMOTEK | Abadiño

Abadiñoko metal taldea, 2006an sortua. Taldeak aldaketa batzuk izan eta gero hauek dira partaideak: David Villarubia *Villa* (ahotsa), Roberto Moisen *Rober* (gitarra), Javier Villar *Javivi* (bateria), Asier Otadui *Zana* (baxua) eta Ivan Esteban *Randall* (gitarra). 2008an *Apathy* izeneko lehen EPa kaleratu zuten. 2009an, *Euskal Zarata Tour '09* delakoan eta *Euskal Strong Festibalean* izan ziren, Walls of Jericho, Hamlet eta Deathe Before Dishonor taldeekin oholtza partekatzen.

Ukabi informatika

Enpresa kudeaketa aplikazioak
•
Era guztietako webguneen diseinua
•
Etxerako eta enpresetarako salmenta

Domingo Irala z/g
(Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 76 51 95



Eskaintza esklusiboa

Prezio hauekin, edonork izan dezake eskuko ordenagailua!

Acer Aspire 5734Z eramangarria

- Teknologia: Intel Pentium Dual Core T4500
- RAM: 4 GB
- Pantaila: 15,6 hazbete.
- Disko gogorra: 320 GB
- Integratutako webcama: Bai
- Sistema eragilea: Windows 7 Home Premium
- Txartel irakurlea
- Wi-Fi
- DVD±RW

... eta ehunka produktu eta eskaintza aurkituko dituzu gurean.



Nahikari tabernan mural bat margotzen ari dira Bergarako zenbait margolariren artean. LANDER MUÑAGORRI

ARTEA > URTEURREN OSPAKIZUNAK

Nahikariren 25 urteak musika eta pinturarekin ospatuko dira

Zortzi margolarik sekuentzian mural bat egingo dute, aurrekoak egin duena ikusi gabe. Musikaren aldetik, Txokorock eta La-Tox taldeek joko dute

LANDER MUÑAGORRI > BERGARA

Bergarako Nahikari tabernak 25 urte bete dituela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte urtemuga hori ospatzeko. Joan den martitzenean hasi eta hilaren 13ra arte izango dira ekitaldiak. Musikak garrantzi handia izango du, baina Nahikari tabernako urtemugari pinturak emango dio kolorea.

Hilotz atsegina (gaztelaniazko *Cadáver exquisito*) izeneko jolasarekin hasi ziren martitzenean bertan, eta datorren astelehenean emango diote amaiera. Bertan, zortzi margolarik hartzen dute parte, eta Nahikariko horman margolan bat egiten diharduten sekuentzian. Margolari bakoitzak bere zatia marraztuko du horma gainean, bere aurretik margotu duenak zer egin duen jakin gabe. Hala ere, jarraipen bat izateko, margoaren azken zatia bakarrik erakusten zaio margotzera doanari. Astelehenean erakutsiko dute margolan osoa.

"XX. mende hasierako surrealistak hasi ziren halako esperimentazioak egiten, baina poesiarekin", zehazten du Rikardo Azkargortak. "Orduz geroztik hainbat esparrutara zabaldu da sormen teknika hau, baita pinturara ere", dio Azkargortak.

Bergaran ere planteamendu horri heldu diote zortzi artista bergararrek. "Orain dela hainbat urte Madrilen izan ginen Bingen de Pedro, Peio Alberdi eta hirurok era honetako esperientzia batean, eta positiboa izan zen. Esperientzia hori hemen egitea ondo legokeela pentsatu genuen", dio Azkargortak. Aipatutako hiru horiez gain, Juanjo Altuna, Carlos Galarraga, Jone Telleria, Unai Azkarate eta Ramon Arantzabal ere egongo dira sekuentziazko margo hori sortzen.

KONTZERTUAK OSPAKIZUNERAKO

Hilaren 12an, egubakoitza, Txokorock-ekin rock-and-roll doinuak iritsiko dira Nahikari tabernara. Zapatuan, bestetik, La-Tox talde elektronikoak bereak eta bi egingo ditu agertokian. Emanaldi hori amaituta, mojito gaua egingo dute. Aurretik egin zuten edizioaren arrakastak bultzatu ditu antolatzaileak bigarren edizioa antolatzera.

ZINEMA > ZINEMA SOZIALEN EMANALDIA

Indigenek egindako filmak eskainiko dira, haien egoeraren berri emateko

Elkarhezitzen eta Mugarik Gabe erakundeen eskutik Arrasate, Eskoriatza eta Oñatin eskainiko dira filmak

L.M. > BERGARA

Azaroaren 9an hasi eta abenduaren 1era bitarte, Zinema Sozialaren lehen edizioa antolatu dute Elkarhezitzen eta Mugarik Gabe erakundeek. Orain artean mota horretako emanaldi eta ekitaldiak antolatu izan dituzte, baina elkarte bakoitzak bere aldetik egin izan ditu. Aurten, indarrak batzea erabaki dute, askotan ikusleen artean nahasmena sortzen baitzuten. Batera lan egitea aberasgarria izango dela jakinarazi zuten aurkezpen ekitaldian.

INDIGENEK EGINDA

Emanaldi horietan eskainiko diren filmak Latinoamerikako indigenek egindakoak izango dira. Antolatzaileen hitzetan, lan horiek indigenek eurek egindakoak izanda, errealitatea euren ikuspuntutik jasotzeko aukera ematen du.

Herri indigenak munduko biztanleriaren %5 dira, baina aniztasun kultural eta linguistikoaren %90en jabe dira, eta bioaniztasunaren %70ena. Hori guztia kontuan hartu dute antolatzaileek herri indigenak gaitzat aukeratzeko orduan.

Ino Galparsoro Arrasateko alkatea ere aurkezpenean egon zen. Haren hitzetan: "Emanaldi hauek aukera ona dira egungo ekonomia neoliberalak izan ditzakeen eraginez ohartarazteko. Horretaz gain, herri indigenek euren identitateari eusteko zer-nolako ekimenak egiten dituzten jakiteko aproposa da ziklo hau".

Zinema Sozialaren egitaraua

Azaroak 9
19:00 *13 pueblos en defensa del agua* filma Eskoriatzako Ibarraundi museoan.

Azaroak 12
19:00 *El segundo desembarco* filma Oñatiko kultura etxean. Buruzagi indigena bat izango da gonbidatu moduan.

Azaroak 16
19:00 *El velo de Berta* filma Eskoriatzako Ibarraundi museoan.

Azaroak 19
19:00 *13 pueblos en defensa del agua* filma Oñatiko kultura etxean. Gonbidatu moduan, Janet Cuji CONAIEko komunikazio agintaria.

Azaroak 23
19:00 *Soy defensor de la selva* filma Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Gonbidatu moduan, Janet Cuji CONAIEko agintaria.

Azaroak 24
19:00 *Soy defensor de la selva* filma Arrasateko Kulturateko areto nagusian. Gonbidatu moduan, Janet Cuji CONAIEko agintaria.

Azaroak 29
19:00 *13 pueblos en defensa del agua* filma Arrasateko Kulturateko areto nagusian.

Abenduak 1
19:00 *El velo de Berta* Arrasateko Kulturateko areto nagusian.

ARTEA > DONOSTIAKO BOSGARREN ZUBIA

Muniategiandikoetxearena izango da zubiaren diseinua

Donostiako zubi berriak 43.000 baldosa izango ditu eta zortzi koloreko diseinua izango du

L.M. > BERGARA

Manu Muniategiandikoetxea artista bergararrak Donostiako bosgarren zubiaren, Jose Antonio Agirre Lehendakariaren zubiaren diseinua egin du. Zubiaren proiektua LKSrena da eta artista bergararrak zoruko irudia egin du. Era horretako lehen lan handia da bergararrarena, eta gustura agertu da, nahiz eta lanak amaitu arte ez duen baloraziorik egin nahi izan.

Itxurari dagokionez, 43.000 baldosarekin osatuko da irudia eta zortzi kolorekoa izango da. Zubiak itsasertza irudikatzen du, era abstraktuan. "Zubia hain formala eta gogorra denez, itxurak abstraktua izan behar zuela iruditu zitzaidan", artistaren hitzetan. Zubiaren zati bat egurrezkoa ere izango da, elkarren artean tarteekin, ibaia ikusten dela. "Itsaso gainean gauden sentsazioa" emateko.

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO TABERNARIEK?

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO ILE-APAINTZAILEEK?

Aintzane Bergara > Oñatiko Musika Eskolako biolin irakaslea

"Biolinarekin musika mota ugari jo daiteke, klasikora soilik mugatu gabe"

Hirugarren ikasturtea du Aintzane Bergara errenteriarrak Oñatiko Musika Eskolan eskolak ematen. Txikitatik biolina lagun, argi dauka hura erakustea lanbide bihurtu izana zorte handia dela. Irakasle izateaz gain, Oreretako orkestrako musikaria, Kaxkabeltz abesbatzako abeslaria eta Realzale amorratua da. Geldi egoten ez den horietakoa, alegia.

MAIALEN GONZALEZ > BERGARA

Enpresa-ikasketetan diplomaduna, Aintzane Bergarak (Orereta, 1983) bere bizitzan musikak leku berezia duela argi izan du betidanik. Enpresa-ikasketak baztertu gabe, musikako LOGSE maila eskuratu eta biolineko eskolak ematen ari da. Orain Oñatin dago irakasle.

Oreretakoa zara eta Oñatiko Musika Eskolako irakasle. Zer dela eta Oñati?

Txikitatik naiz Oreretako Musika Eskolako ikaslea eta egun ere bertan jarraitzen dut. Nire irakasle batek Oñatin zuen postua libre utziko zuela esan zidan eta aukera polita ikusi nuen biolineko eskolak emateko. Dagoeneko hiru urte igaro dira ordutik hona.

Eta zer moduz Oñatin?

Ondo! Oreretatik Oñatira etortzea kosta egiten da apur bat, baina gustura nago.

Biolineko irakasle zara. Zer dela eta aukeratu zenuen biolina ikastea?

Hasieran pianoa ikasi nahi nuen, baina biolina entzun nuenean hura ere gustatu zitzaidan eta biolina aukeratu nuen. Gainera, pianoa ez litzateke etxean sartuko! 7 bat urte nituenean hasi nintzen biolinarekin. Gerora, Musika-ikasketak aurrera joan diren heinean, pianoa ere ikasi behar izan dut; beraz, gustuko nituen biak jotzen ditut orain.

Zenbat ikasle dituzu eskolan?

Guztira, zortzi ikasle ditut. Txikienak 7-9 urte artekoak eta baita heldu bat ere.

Musika klasikoa bakarrik irakasten diezu ala abesti modernoagoek ere badute lekua?


Klasikoaz gain, beste musikamota batzuen partiturak ere ematen dizkiet. Izan ere, biolina beti lotu izan da klasikoarekin, baina hortik kanpo ere badu lekua eta ikasleei hori erakutsi nahi diet. Abesti herrikoiak, jazza... rock-and-rolleko abestiak ere jo daitezke biolinarekin!

Irakasle izateaz gain, Oreretako orkestran ere jotzen duzu.

Bai, umetatik nago bertan. Lehenbizi Orkestra Txikian eta 12 urterekin Orkestra Handira igaro nintzen. Instrumentuaz gozatzen jarraitzeko modu bat da, nolabait, bertan ere asko ikasten da-eta. Estilo ezberdinak edo konposatzaile baten zein bestearen obrak jotzerakoan ikasten ari gara etengabe.









MAIALEN GONZALEZ

Gertu duzuen kontzerturik prestatzen ari zarete?

Bai, azaroan bi emanaldi izango ditugu, bata Andoainen eta bestea Errenterian. Bietan, ekainean aurkeztu genuen Joseph Haydn konposatzailearen 94. sinfonia, *Surprise* (Sorpresa), eskainiko dugu. Hari-taldeaz gain, haize eta perkusio taldekoek ere joko dute.

Zer nahiago duzu, irakastea ala ikastea?

Irakastea ikaragarri gustatzen zait. Azken finean, oso gustuko dudan zerbait erakusten ari naiz. Baina ikastea ere garrantzitsua da, orain arte egindakoa ez galtzeko eta formazioarekin jarraitzeko.

Lanbidea eta ogibidea izateaz gain, zer eskaintzen dizu musikak?

Musika nire bizitzako parte da, beti ondoan izan dudana. Erlaxatzeko bidea izan da beti, azterketa garaian estresatuta nengoenean biolina jotzeak lasaitu egiten ninduen askotan. Nork bere sentimenduak erakusteko beste modu bat ere bada musika.

Musika jotzeaz gain, abestu ere egiten duzu.

Oreretako Kaxkabeltz abesbatzan abesten dut duela lau urte. 40 kide inguru gara eta Oreretan Gabonetan izaten den Gabon kantuen txapelketarako entseatzen dugu. Ez da abesbatza federatua eta urtean zehar ez dugu beste emanaldirik eskaintzen, Gabonetako txapelketarako bakarrik prestatzen gara.

Biolin-jotzaile ala abeslari?

Abestea gustuko dut, baina biolina aukeratuko nuke, duda barik.

Realzale amorratua ere bazara. Nola bizi izan zenuen talde txuri-urdinaren igoera?

Taldeko bazkide naiz eta Anoetan egon nintzen ekainaren 13 hartan. Sekulako poza sentitu eta sekulako parranda egin genuen, merezi bezala!

Nola ikusten duzu aurtengo denboraldia Realarentzat?

Ba, ondo hasi ginen, eta, puntu batzuk galdu ditugun arren, berriro ere gora goaz. Izan ere, aurten, mailari eutsita, nahikoa eta soberan!

PERTSONALA

Herria: Orereta. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Enpresa-ikasketetan diplomaduna eta Musika-ikasketetako LOGSE maila. **Zaletatsunak:** Futbola ikustea, musika entzutea eta zinema. **Gorrotatzen duzu zer edo zer:** Sugeak. **Musika klasikoko musikari bat:** Bach eta Mozart. **Klasikokoa ez den musikari bat:** The Corrs taldea. **Biolin-jotzaile bat:** Vanessa Mae. **Futbol jokalari bat:** Joseba Llorente. **Ikusi duzun azken filma:** *El equipo A*. **Bisitatzeko leku bat:** Zugarramurdiko kobazuloa. **Bizi izateko leku bat:** Orereta edo Donostia.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 *sailkatuak@goiena.com* edo *http://www.goiena.net/sailkatuak*

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Erdialdean 65 metro koadroko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berriztu berria. 20:00etatik aurrera deitu. 603 79 60 95.

Arrasate. San Josepe. 47 m koadro, 2 logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. Kontaktua: etxerakomodukoa@gmail.com.

Oñati. Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, ganbara eta garajea. 647 24 80 02.

Oñati. Santa Marina plaza inguruan 60 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela handi, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 60 metro koadroko ganbara, duplexa egiteko aukerarekin. Guztira: 120 metro. Balkoi handia eta oso eguzkitsua. 235.000 euro. 685 75 59 25

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01 21.

Arrasate erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, gela txiki bat, sukalde-egongela eta komuna. Oso argitsua. Estreinatzeko. 650 euro. 653 95 19 08

Eskoriatza. Hiru logela, bi komun. Jantzia. Berokuntza eta igogailuarekin. Prezio interesgarria. 687 78 86 98.

La Mongie. Etxebizitza ematen da errentan. Denboraldi osorako edo asteburuetarako. 2 edo 4 pertsonarentzako. Pistatik gertu. 606 39 70 81.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bikote batek etxebizitza behar du errentan. 610 62 65 04.

Debagoiena. Etxebizitza behar dut errentan. Arrasaten, ahal bada. Hilean asko jota 500 edo 600 euro ordain dezaket. 639 94 48 65.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan. Deitu 18:00etatik aurrera. 943 53 21 62.

Arrasate erdigunean etxea osatzeko pertsona bat behar dugu. Hilean 200 euro, gastuak barne. Iñaki. 608 49 89 93.

Oñati Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan emateko Errekalden. Deitu 18:00etatik aurrera. 653 74 87 51 edo 699 46 76 11.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Santa Kurtz kalean. Prezio negoziagarria. 630 46 36 71.

Arrasate. 20 metro koadroko garaje itxia salgai Uarkapen. Hirugarren solairuan, sarreratik gertu. 943 24 53 57 edo 615 73 98 30.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia ematen da errentan erdigunean. 24 metro koadro (8,40x2,85). Roneoko etxeetan. 616 15 63 73.

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan San Juan Kale inguruan. Berdin da itxia izan ala ez. 627 62 12 55.

3/ LOKALAK

302. EROSI

Oñati. Lokala erosiko nuke, 25-120 metro koadro bitartekoa. 943 79 66 75.

4/ LANA

402. ESKAERAK

BERGARA

Esperientziadun ile-apaintzailea behar da Amparo Ile-apaindegian.

943 76 56 05

402. ESKAERAK

Aretxabaleta eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. 607 73 16 78

Aretxabaleta. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943 53 33 92

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egiteko edo etxea garbitzeko, orduka, arratsaldez. 699 54 17 27.

Arrasate eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679 73 92 66

Arrasate. Asteburu eta jaiegunetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko... 682 31 97 37

Arrasate. Neska euskalduna gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 659 81 59 15.

Arrasate. Neska euskalduna gertu arratsaldeetan umeak zaintzeko. 615 76 19 82

Arrasate. Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28

Bergara. Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. 671 44 81 51

Bergara. Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordutegi aldetik arazorik ez. 673 22 38 00

Bergara. Emakumea gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. 610 34 97 88

Bergara. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 665 75 41 32.

Bergara. Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686 11 24 66 Editatu

Debagoiena. Emakumea gertu asteburuetan lan egiteko, garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzen. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko garbiketan, nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiten. Deitu 606 74 16 15 zenbakira.

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu sukaldari jarduteko. Garbiketan ere arituko nintzateke. 619 78 63 41.

Debagoiena. Frantses eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 617 93 83 39.

Debagoiena. Ile-apaintzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere. 666 21 88 95.

Debagoiena. Mutila gertu asteburuetan edozelako lanak egiteko. 654 98 69 14.

Debagoiena. Mutila gertu garbiketa edo bestelako lanetan jarduteko. 689 88 80 23.

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzen, nagusiei laguntzen edo orduka garbiketa lanetan jarduteko. Deitu eguerdietan, 16:00ak arte, telefono finkora, edo gauetan. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95.

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 679 04 42 68.

Debagoiena. Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630 20 12 03 edo 638 10 28 85.

Debagoiena. Paperak dituen emakumea gertu etxeak garbitzeko, sukaldari laguntzaile edo garbitzaile gisa lan egiteko. 645 69 36 51.

Debagoiena. Lokal, baserri eta denetariko egoitzak garbitzeko prest nengoke. Deitu 675 70 00 02 edo 665 70 10 57 telefono zenbakietara.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Bigarren batxiler artistikoko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 628 77 58 28.

Bergara. Filosofiako irakasle baten bila nabil. 618 79 47 48.

502. EMAN

Arrasate edo Bergara. Arkitekturan lizentziaduna eskola partikularrak emateko prest, DBH eta batxilergo mailetan. Esperientziaduna. 639 46 07 26.

Arrasate. Neska euskalduna, irakaskuntzan diplomaduna, Lehen Hezkuntzan eskola partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. 652 73 14 44.

Debagoiena. Neska gaztea prest euskara, ingeles edo gaztelaniako eskolak emateko. 628 87 02 43 edo 943 79 85 01.

6/ MOTORRA

601. SALDU

